



6€ **EUSKAL HERRIKO** *Natura*

94
ZENBAKIA

2016eko UZTAILA-ABUZTUA



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

HEGATXABAL ARRUNTA

BUZTANIKARA ZURIA

ERREKATXINDORRA

USAPAL ARRUNTA

TXEPETXA

GILOIA

IHI HORIA

DURDULA

ZOZO ARRUNTA

EULITXORI BELTZA

ENARA AZPIZURIA

EZAGUTU ITZAZU!

**EUSKAL HERRIKO
LUR HEGAZTIAK**

EUSKAL HERRIKO LUR HEGAZTIAK

ZOOLOGIA



URRETXORIA



ARGI OILARRA



HEGATXABAL ARRUNTA



ERLETXORI ARRUNTA



BUZTANGORRI ARGIA



MENDI TUNTUNA

**EUSKAL HERRIKO NATURA**

**EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCO

IRAUNGITZEKO ZORIAN DAUDEN ESPEZIEAK DEFENDATZEKO ELKARTEA

ZURE NATUR ETA ZOOLOGIA ALDIZKARIA

EHAA-1996ko otsailak 7, asteazkena.
3/1996 DEKRETUA, urtarilaren 9koa, Elkarte
herri-onurakoa dela aintzatesten duena.

**Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

AURKIBIDEA

EUSKAL HERRIKO NATURA - 94.zk - 2016eko UZTAILA-ABUZTUA - 6€



Galaperra.....	4
Giloia.....	5
Oilagorria.....	6
Pagausoa.....	7
Usapal arrunta.....	8
Usapal turkiarra.....	9
Cucu arrunta.....	10
Sorbeltz arrunta.....	11
Erletxori arrunta.....	12
Argi oilarra.....	13
Lepitzulia.....	14
Okil txikia.....	15
Okil berdea.....	16
Hegatxabal arrunta.....	17
Txoriandre arrunta.....	18
Enara azpizuria.....	19
Uhalde enara.....	20
Enara arrunta.....	21
Uda txirta.....	22
Landa txirta.....	23
Buztanikara zuria.....	24
Txepetxa.....	25
Txantxangorri.....	26
Tuntun arrunta.....	27
Errekaxindorra.....	28



Buztangorri iluna.....	29
Buztangorri argia.....	30
Buztangorri beltza.....	31
Buztangorri arrunta.....	32
Pitxartxar nabar.....	33
Durdula.....	34
Birigarro arrunta.....	35
Zozo arrunta.....	36
Garraztarroa.....	37
Benarriz gorritza.....	38
Ur benarriza.....	39
Benarriz nabarra.....	39
Ihi horia.....	40
Baso txinboa.....	40



Sasi-txoria arrunta.....	41
Txinbo kaskabeltza.....	42
Txinbo papagorritzta.....	43
Txio arrunta.....	44
Txio iberiarra.....	45
Erregetxo bekainzuria.....	46
Eulitxori beltza.....	47
Euli-txori grisa.....	48
Garrapoa.....	48
Buztanluzea.....	49
Harkaitz-txoria.....	49
Gerri-txori arrunta.....	50
Basoetako gerri txoria.....	51



**EUSKAL HERRIKO NATURA**

Zuzendaria: Fernando Pedro Pérez.
Erredakzioburua: Iñaki Landaluze.
Kolaboratzaileak: Nerea Urtaran, Miren Alustiza, Oskar Azkona, Fidel Korta.
Anaut Paterson, Jon Zubiri, Elena Azkarreta, Xabier Aramburu, Kepa Alustiza.
Argazkilari-taldea: Edurne Urkizu, Aitor Zubizarreta, Xabier Urreta, Izaskun Loidi.
Maketatzailea: Elena Carriedo.
Legezko gordailua: BI-2452-02.
ISSN: 1695-4645 **Aleak:** 2.000

Erredakzioa:
Av. Madariaga, nº. 47-6º C - Esc.1 - 48014 BILBAO.
Tel: (94) 4 75 28 83. e-maila: adeve1991@gmail.com

Argitaratzailea:
Iraungitzeko Zorian Dauden Espezieak
Defendatzeko Elkarte.

**EUSKO IKASKUNTZA**

Naturaren Ahotsa Interneten zabaltzen da Euskomedia Fundazioaren bitartez, ADEVE eta EUSKO IKASKUNTZA-ren arteko hitzarmena dela eta WWW.euskomedia.org/adeve

**eusko fundazioa**

HARPIDETZA-ORRIA Urteko kuota: Hamabi ale urtean: 36 euro. TLF: 94 475 28 83

GALEPERRA (*Coturnix coturnix*)

DESKRIBAPENA: kolore arre-lur-karaz jantzitako galinazeo txiki eta txaparra. Bizkarreko partea, urkitu beltzez eta harea argiz zenbait pintzeladez apaindutako arre-lurkara kolorekoa da. Azpiko aldea argiagoa da eta alboak marratuak dira. Arrak kolore iluneko paparra eta idunekoa aurkezten du, emearenak, marroi argiak kolorekoak eta marratuak.

TAMAINA: luzera: 19 cm. Hego luzera: 36 cm

BIOLOGIA: landare-estalki sarria duten tokietan egiten du habia, belarrez estalitako sakongune batean. Normalean 8-13 arrautza erruten ditu eta 18ren bat egunez txitatu ondoren jaiotzen dira txitoak. Hauek, handik gutxita, amari jarraitzeko gauza dira.

Gelper arrunta apirilaren erdialdean iristen da hemengo soroetara eta irailera arte egoten da bertan. Migrazio jokabide oso konplexua du, umetze aldian zehar sarritan hara-honako mugimenduak eginez eta eremu desberdinak okupatuz. Beste alde batetik, azkenengo garaietan, Europako galeperren migimendu-ohiturak modu nabarian aldatzen ari da. orain dela gutxi arte, gehienak Sahelen, Saharatik hegoaldera pasatzen bazuten negua, gaur egun gero eta gehiago dira Afrikako iparmendebaldean gelditzen direnak negua pasatzeko; bertan, lehenengo errunaldi bat, goiztiarra, egiten dute eta haietako asko berriz ere Europara pasatzen dira



bigarren aldiz umetzeko. Marroko aldean ureztatutako lurren hedapenak, dirudienez, gero eta galeper gehiago Afrikan gelditzera bultzatzen ditu, ugaltzeko Europara migratu gabe.

Hegazti honen migrazio-ohituraren konplexutasunak eta populazioaren gora-beherek haren kopuruaren bilakaera aztertzea oztopatzen badute

ere, badirudi Europako populazioak atzeraka jotzen duela. Gutxiketa horren zergatien bila, nekazaritza ihardueren areagotzea, Saharaz bestaldeko negutegietako lehorteak, eta gehiegizko ehiza (batez ere migrazio aldian) aipatu behar dira.

ELIKADURA: funtsean bikorjalea da, baina maiz xamar onogabeak ere jaten ditu.

HABITATA: mozteko soroetan eta ingurune zabal eta irekietan bizi da. Gutxiagotan bada ere, atlantiar landazabaleko belardietan ere aurkitzen da.

HEDAPENA: ia Europa guztian (Britainia Handiko iparraldean, Islandian eta Eskandinavian bakarrik falta da), Asiako erkialdean, Indian eta Afrikan zehar hedatuta dago. Iberiar Penintsulan Europako populazioaren laurden bat biltzen da eta alde guztietan banatuta dago. Urte batetik besterako gora-behera handiekin ere, Araban ohizko hegaztia da, batez ere zereal soroak ugari diren lautadetan. Europako galeperrek negua Afrikako lurraldeetan pasatzen dute, Saharatik iparraldera nahiz hegoaldera, baina banako batzuk Uberiako hegoaldean gelditzen dira urtaro horretan.



GILOIA (*Crex crex*)

DESKRIBAPENA: tamaina txikiko hegaztia da, 30 cm izan daitekeena luzean. Bizkaralde arrea ageri du, ilunez tindatua, ia beltza. Hegoetan kolore uniforme du, marroi-gaztaina. Beheko aldeak, berriz, grisak ditu. Haragi-kolorekoa du mokoa, punta-iluna. Hankak arrosa samarrak ditu.

TAMAINA: luzera: 13 cm.

BIOLOGIA: bakartia da, iheskorra eta izua; landaredi belarkara artean ezkutatuta egoten denez, hautemangaitza izaten da. Ilunabarreko jarduna dagokio. Gaez migratzen du gehienbat. Landaredi artean egiten du habia, lurlean ezkutatuta, belar lehorrezko plataforma eta guzti. Errunaldi bakarria izaten du urtean; zortzi edo hamabi arrautza erruten ditu orduan. Ale bakan batzuk baino ez daitezke hauteman Euskal Autonomia Erkidegoko kostaldeko zenbait zatitan; bitxia eta urria den adierazgarri garbia. Europan, bestalde, atzerakada handia jasaten ari da.

Europari dagokionez, ondoko arrazoiak aipatu ohi dira atzerakada horren eragileetatik: ingurunearen aldaketa; lurzoru hezeen drenatzea; eta nekazaritza-jardueren areagotzea, biodibertsitatearen kontserbazioarekin batera ezin diren usadioez baliatzen



baita sarri askotan.

ELIKADURA: intsektuak, moluskuak, zizareak, krustazeoak eta landareak ditu elikagaitzat.

HABITATA: bizilekutzat hautatzen ditu, besteak beste: belarrezko estalki joria ageri duten eremuak; hezegune-bazterrak; basoetako soilguneak; ubideak dituzten istingadiak; eta altuera apur bateko bazka-laboreak. Euskal Herrian, udazkenean eta udaberrian ageri ohi da, paseko hegaztien artean, eta batik bat kostaldean zehar. Barrualdeko zenbait hezegune ere aukera dezake topaleku gisa.

EPER GORRIA (*Alectoris rufa*)

DESKRIBAPENA: eperrak gorputz biribil du eta sendoa eta hego labur eta zabalak ditu. Normalean oinez edo korrika ibiltzen da eta oso gutxitan egiten du hegan.

TAMAINA: 34-35 cm.

BIOLOGIA: habia lurlean egiten du, saski edo belar azpian eta txitoak nidifugotzen dira.

Oinez eta lasterka egiteko oso ongi hornitua dago, eta arriskuren batek behartzen duenean bakarrik hegatzten da. Hala ere, uzeneko hegaleran eperrak oso hegazti lasterrak dira, orduko 80 km. Harrapatzen dutelarik dira; eperrak uda-hegaztiak dira; eperrak, aldiz geldikortasun gogorragatik bereizten dira.

ELIKADURA: haziz elikatzen da batez, nahiz eta txitek portzentaia handi batetan elikagai animala jan:

zizare, barraskilo eta matxinsaltoak, alegia.

HABITATA: zereal-soroak eta landa zabalak gogoko ditu. Euskal Herrian, isurialde mediterraniarrean soilik bizi dira.



OILAGORRIA (*Scolapax rusticola*)

EZAUGARRIAK: Beraren plu-
maia, kolore marroi, arre, okre,
zurien nahastura handiz izan ohi
da, egin-eginean ere, orri lehor
eta baso argilunen artean ikuste-
zin bilakatzen duen itxura ema-
ten diolarik.


Anatomia alorrean zerik berezie-
na 7 zm. Inguruko moko luzea
du. Hegazti hauen artean, moko-
laburrak (3-4 zm.tako moko
baino ez dutenak), hegazti ia
guztik zuriak edo egitan ia bel-
tzak nahiz hainbatetan hegazti
griska edo marroiak izateak
espezie barneko aldagarritasuna
frogatzen du, baina ezin da esan
espezie ezberdinik dagoenik.

Pisua 220 eta 420 gr. Artekoa izan
ohi du, batez bestekoa 310 gr.
Ingurukoa izaten dela.

Hamairu urterarte bizi izan diren
oilagorren berri izan dugu.

Halako gertaera bitxia alde batera
utzirik, oilagor gazte baten bizi-
raupena ez da 21 hilabetetatik
gorakoa izaten. Heriotzarik uga-
rienak jasoten direneko lehen
urtea igaron ostean, beraren bizi-
txaropena 26 hilabetetarte heltzen
da.

Oilagorra Europa eta Asiako zonalde epeletan banatuta aur-
kitzen diren aldeetan bizi ohi da, Britania Irletatik eta
Europako erdialde eta iparraldetik Mongolia, Txina eta
Ozeano Bareko kostaldeetaraino.



Oilagorrek beren kumeak, era berean,
Azore, Madeira eta Kanaria Irletan eta
Penintsula Iberiarreko erdialdetik gorako
iparraldean ere ateratzen dituzte.

BIZILEKUA: Oilagorrek basoa behar du
bitzitzeko; hainbat giro ezberdin izan
ditzake: sahastiak eta haltzadiak, hariz-
tiak, pagadiak, artadiak, pinadiak edo
eukalipto basoak. Hala ere, argi dago
batez ere bertako zuhaitzak dituela gogo-
ko.

Bi faktoreek dute eragina bizilekua auke-
ratzerakoan: landaretzaren egiturak nahiz
janari aberastasunak edo eta barietateak.
Lehenari dagokionez, oilagorrek nahiago
izaten ditu erraz arinetan egiten utziko

dioten alde zerratuegiak ez direnak. Dena den, alde batera
uzten ditu baso garbiegiak eta berdin-berdinak, halakoetan
ez duelako babeslekurik aurkitzen.

ELIKADURA: Beraren. Janaria, batez ere zizareek, intsektu
kumekiek, har txikiek, barraskilotxoek osotzen dute,
horietaz gainera hazi eta orri batzuk jaten baditu ere.
Udazkenean eta neguan oilagorrek egunak arbola-
dietan ezkutatua igaroten ditu, arratsaldeetan janari
bila belardi edo landeetara joaten delarik.
Lehenago esan den bezala, hegazti honek lotura
handia izaten die urtero bisitatzen dituen lekuei.

UGALKETA: Kumaldia martxotik uztailera bitartean
izaten da. Emeske den arrak eskontza-hegal-
diak egiten ditu ilunabarrean eta egunsentian, baso gai-
nean hegaz egiten duen artean "krou-krou-krou"
hots berezia, tarteka "psitt-psitt" txandatzen duela,
eginez.

Habia oso arrunta izaten du, bestelako zerik gabe
lurraren gainean eta oso zarratua ez den basoko
zonaldeetan jartzen duela. zeneralean 4 arrultze egi-
ten ditu, baina bi kume heltzen dira hegaz egitera.

PAGAUSSOA (*Columba palumbus*)

DESKRIBAPENA: uso handia eta trin-
koa da. Burua, gorputzaren tamainare-
kin konparatuz, txikia da, eta buztana
beltza du. Ezaugarri nabarmena,
urrutitik ikus daitekeen hegoen gaineko
mantxa zuri deigarria da. Ale helduek,
gazteengandik bereizten dituzten man-
txa zuri deigarriak ere badituzte.
Bestela, lumajea gris-urdinska homo-
geneoa da. Hegan egiteko modua
azkarra da, hegoak astintzerakoan
zarata berezia sortzen duelarik.

TAMAINA: luzera: 40-42 cm. Hego
luzera: 72-76 cm

BIOLOGIA: arbola-adarretan egiten du
bere habia mengela. Ia beti arrautza
erruten ditu eta horien eklosioaren
ondoan, lehenengo egutean helduek
paparoko jariakinekin elikatzen dituzte
txitoak. Urtean behin edo birritan erru-
ten du.

Europako pagausoetako asko
Pirineoen mendebaldeko muturretik
igarotzen dira umatzen diren lekuen
eta Iberiako erdialde eta hegoaldeko
dehesetako negutegien arteko migra-
zio bidaian. Garai horretan, kalkulatz
da bost milioi hegazti inguru pasatzen
direla, neurri handi batean Itsaso
Baltikoaren inguruko herrialdeetatik
etorrita. Ezteiondoko migrazioa urria-
ren eta azaroaren artean egiten da eta horretan pagauso
kopuru handiek zeharkatzen dute Arabako lurraldea, batez
ere herrialdearen ekialdeko erditik. Pagauso ehiza oso sus-
traituriko ohitura da eta mendi lepo eta gailurretan kokaturi-
ko ehundaka ehiztari egoten dira haien pasearen zain.



Ezteiaurreko migrazioa-kontra-
pasa- otsailean eta martxoan
izaten da, baina udazkeneko
pasea baino ekialderago dauden
bideetatik egiten dute eta horre-
gatik Araban ez da hain nabaria.
Europako iparralde eta erdialde-
ko populazio egoiliarrek gehi-
kuntza nabarmena izan dute,
baina Pirinoetan zehar migra-
tzen duten pagausoen kopuru-
aren bilakaerak ez du joera argirik
agertzen. Nolanahi ere delarik,
espezie arrunta da, iraupen
aldetik arazo larrik ez duena.

Hala ere, aipatu beharrekoa da

ehizak haien populazioetan duen eragina; Espainian, milioi
bat hegazti inguru hiltzen ditu urtero.

ELIKADURA: udaberrian, askotariko landareen haziak eta
hostoak jaten ditu. Neguan, berriz, neurri handi batean arte
eta artelat ezkurak jaten ditu haien orde. Pagazi uzt
oparoa dagoen urteetan, beren migrazio
bidaletako geldialdietan fruitu txiki horiek
jatea atsegin zaie.

HABITATA: habia egiteko eremu arrun-
tenak artadiak, erkameztiak, pagadiak,
ibar basoak, etab. dira. Neguan,
Penintsulako hegomendebaldeko arte
eta artelat dehesa zabalak nahiago
ditu, eta gure lurraldean gelditzen diren
pagauso urriak batez ere artadietan
ikusten dira.

HEDAPENA: Munduko banaketa-ere-
muak Europa guztia Asiako hegomende-
baldea eta Afrikako iparraldeko muturra
hartzen ditu. Iberiar Penintsulan nonahi
agrtzen da, baina neguan zehar batez
ere hegomendebaldeko laurdenean bil-
tzen da. Euskal Herrian ondo banatuta
dago habigile bezala.



USAPAL ARUNTA

(*Streptopelia turtur*)

DESKRIBAPENA: usoaren antzeko hegazti txiki eta xehea da, baina azkar trebeki sigi-saga hegan egiteko duen gaitasunak, zulueta lerdengoa ematen dio. Airean usapal turkiarrarengandik, bera baino txikiagoa delako eta puntan banda zuria duen buztan beltzagatik bereiz daiteke. Horretaz aparte, lumajea gaztainakara-gorriska kolorekoa da, alboetan mantxa beltzak dituelarik. Lepoan marra transbertsal beltzak bereiz daitezke, gazteek aurkezten ez badituzte ere.

TAMAINA: luzera: 25-30 cm. Hego luzera: 52-55 cm.

BIOLOGIA: zuhaixka eta sastraketan egiten du habia. Emeak sakonera gutxiko plataforma bat egiten du, adaskaz, lurretik metro baten eta bost metroren arteko altueran. Bi arrautza zuri distiratsu erruten ditu. Bi gurasoak ardurtzen dira txitaldiaz, 13-14ren bat egunez, eta txitoen hazkuntzaz. Hauek, nidikolak, jaiotzatik 18-20 egun igarota hegaldatzen dira. Jeneralean bi umaldi egiten dituzte denboraldiko.

Usapalak apirilean eta maiatzean zehar iristen dira beren umetze lekuetara. Afrika tropikaleko negutegietaranzko ezteiondoko migrazioa abuztuaren amaiera aldetik urriaren



erdialdera arte izaten da.

80eko hamarkadaren erdialdetik aurrera, iraupen-egoera desegokia detektatu da haren populazioetan. Landatuko lurren hedakuntza, soro arteko mugen, ibarbasoen eta basotxoaren desagertzea ekarri duena, herbiziden erabilpena -landaretza erruderala suntsitzen duena-, gehiegizko ehiza eta Afrikako negu aldeetako lehortearen dirak egoera horren sortzaileak.

ELIKADURA: usapalek askotariko basa-hazi txikiak eta landutako bikorrak (garia, garagarra, ekilorea eta beste batzuk) jaten dituzte.

HABITATA: oru eta labore-lurrez inguratutako ibar-basoen bizi dira normalean. Erlaitz kantauriarrean, larre eta soroz inguratutako tamaina desberdinetako basoen topatu dugu. Baso hauek, zuhaitzi sakabanatuak, haltzadiak eta baso mistoak, edo artadiak izan ohi dira. Negupasako eremuetan sabana zabaletan biltzen dira, gramineo basa eta landuak ugari diren tokietan.

HEDAPENA: usapal arruntaren habigintza-eemuak Europa gehiena (Islandia, Irlanda, Britainia Handiko iparraldea eta Eskandinavia izan ezik), Asiako mendebaldeko erdia eta Afrikako iparraldea, Kanaria uharteak barne direla, hartzen ditu. Iberiar Penintsulako alde gehienean egiten du habia, eremu menditsuenetan eta baso sarrietan izan ezik. Negualdia Saharaz bestaldeko zerrenda zabal batean ematen du, senegal eta Etiopiaren artean.

USAPAL TURKIARRA

(*Streptopelia decaocto*)

DESKRIBAPENA: kolore arre argiko uso txikia. Azpiko parteetan kolorea larrosara aldatuz doa, begien kolore gorria, eta saman, ixtera heltzen ez den iduneko fina nabarmentzen direlarik. Airean, usapal arrunta baino handiagoa delako, eta azpitik begiratuta, buztanaren oinarri beltzak eta punta zuriak oso kontraste ikusgarria sortzen dutelako bereizten da.

TAMAINA: luzera: 27-32 cm. Hego luzera: 55-58 cm.

BIOLOGIA: eremu txikiak aukeratzen dituen hegazti lurraldekoa dugu hau. Ugalgaraia martxoan hasi eta irailan bukatzen da, batzuetan negukohilabetetan ere jarrai dezakeelarik. Oso habia sinpleak eraikitzen ditu, zuhaitzetan gehienetan, kaleargiak, zuhaiskak, etab. ere erabiltzen dituelarik. Normalean bi arrautza erruten ditu, inkubazio-aldia 14-16 egunetako delarik. 20 egun inguru pasa ondoren, txitoek habia uzten dute aitaren ardurapean geratzeko, emea jadanik txitaldi berria inkubatzen baitago. Dirudienez, hegazti gazte batzuek, gurasoengandik banandu ondoren sakabatze-mugimenduei ekiten diete lurralde berriak aurkitu nahian, nohizean behin, ugalgaraitik kanpo, usapal-andanak beha daitezkelarik. Beste ale gazte batzuk sedentarioagoak dira eta jaiotzetik hurbil dauden jaberik gabeko eremuak bilatuko dituzte.

ELIKADURA: usapalek askotariko basa-hazi txikiak eta landutako bikorrak (garia, garagarra, ekilorea eta beste



batzuk) jaten dituzte

HABITATA: lorategietan eta hirigunetako parkeetan bizi baita batez ere. Getxoko edozein lorategi edo parke basotuan topa daiteke usapal bikoteren bat. Santa Anatik (Areeta) Azkorrira, espezie honen beha-

keta arrunta dela esan daiteke. Etxeetako antenetan, hari elektrikoetan, zutoinetan, zuhaitzetan, etab. pausatu ohi da, eta bertatik eremua seinalatzeko, arruma kexatiaren antzeko zarata sortuz, kantu egiten du, goizean goiz eta gaueko azken arduetan batez ere.

POPULAZIO BANAKETA: usapal turkiarra Euskal Herrian 60. Hamarkadan agertu zela uste da, Irunen eta Getxon finkatu zelarik. Bertako koloniak hazi ahala, espeziea zabalduz joan zen, gaur egun, Euskal Herria barreneko hiri eta herrietako lorategi eta parkeak okupatu arte. Getxoko populazioak jokaera sedentarioa aurkezten du, hegazti gazteek, lehenengo eta bigarren urtean, sakabatze-mugimenduak aurkezten badituzte ere. Espezie honen populazioak oso gorakada nabarmena jasan du. Azkenaldian zenbait aleek, hirigunetatik aldendurik, inguruetako nekazal gunek kolonizatzerantz ekin diotela behatu da, hala nola Azkorriko pinudia, Bolue etab.



HAITZ USOA

(*Columba livia*)

DESKRIBAPENA: gurre herrietan etahiritako parketan bizi diren etxauso guztiak eta haitz-usoak espezie berdinekoak dira: Columba livia. Benetan gertatzen dena zera da, etxausoak haitz-usoen ondorengoak direla, eta horietariko asko, koloraketa eta lumajeagatik basausoren oso antzekoak dira, berdinak ez esateagatik.

Ohituretan eta jokabidetan berdinak direnez, oso zaila gertatzen da zenbait etxauso-populazio erdi-basati benetako basatietatik bereiztea.

Haitz-uso basatiak lur barneko harmal eta itsas labarretan bizi dira gehienbat.



TAMAINA: luzera: 33 cm.

KUKU ARRUNTA (*Cuculus canorus*)

DESKRIBAPENA: tamaina ertaineko espeziea, usapal baten antzekoa, gutxi gora-behera. Gainerik kolore grisa du, hegoak eta buztana beltzak dira, eta bularren beheko partea zuria, zeharkako marra gris ilunez apainduta (eme batzuek kolore arrea dute).

Bere ziluetak gabiraia edo belatz gorria dakarkigu burura, hegoak estu eta zorrotzagoak dira, eta hegan egiteko modua lasaia. Bere kokapenerako, aski ezaguna den "Pe-ku" antzeko soinu jarraia eta konstantea aipatu behar da.

TAMAINA: luzera: 34 cm. Hego-luzera: 59-61 cm. Pisua: 110-130 g.

BIOLOGIA: gure latitudetara apirilaren hasieran iristen den hegazti hau, Europako geografian bizitzen diren hegaztien bitxiena eta ohitura arraroenak dituena da, seguraski; hain berezia bait da bere alikadura, barrutikoitasun eta batez ere ugalkera. Elikaduraz gehienbat intsektujalea da, nahiz eta oso aldakorra izan; eta honek egiten du habitata-mota guztien kolonikuntzarako ahalbide handia izan dezan. Bere harrapakin ugariak mota guztietako intsektu-harrak dira eta batez ere beldarrak, pinu-beldarrak, horiek dauzkaten defentsa erresumingarriak direla eta, beste hegazti gehienentzat liseriezinak gertatzen direnak. Hartzen dituzten barrutiak espeziearen ugaltzura berezien funtzioan daude, eta kasu honetan eme baten barrutiak hainbat arrenak batera hartzen ditu.

Denok dakigun bezala, kukuak paseriformeen habiak parasitatu zituen, ez du habiarik egiten, baizik eta beste hegaztien habietan egiten ditu bere arrautzeak, erron alegia. Horretarako,



bere barruti bertako ar batek emaldu duen emeak, ugalketa lanean ari den hegazti txikiren baten higidaia zaintzen ditu; honela, beste honek erron ondoren, kukuak, trebetasunez eta kontu handiz, arrautze bat kentzen dio eta bere batez laster ordeztzen. Honela, habiaz habia ibilia, 15-era arte parasita ditzake, eta berezitasun batez egin ere: eme bakoitzak beti hegazti-mota berdinarekin habiak aukeratu zituen, urteetan zehar mesedegarri izan zaion hegazti-mota

harenak hain zuzen.

Kukuaren eta berak parasitatu zituen espezieen arrautzeak biziki antzekoak dira, arrautzeen forma eta kolorea determinatzen dituena, emeak loturiko eta ametatik alabetara igarotzen den herentzi faktore bat dela dirudi. Hautespene naturala izan da kuku-arrautzeak eta hegazti parasitatuenen artean lortu den antzaren erabakitzaile, zeren txorien antzekoen diren kuku-arrautzeak bakarrik lortuko bait dute hegazti anfitrioiari iruzur egin, eta ondorioz eklosionatzea, koskatzea.

Eklosionatu ondoren, kuku jaio-berriaren jaiotzeko joera bat dela bide, ordu gutxi barru, inguruan duen guztia kanpora botatzen du, eta horrela, arrautze eta txita anaiordeak lurrera eroririk hil egiten dira.

Etseko jaun eta jabe egin ondoren, jan-eske hasten da oihukatzen atsedenean gabe; eta egun gutxi barru, bere amaordea baino handiagoa izanen da; hiru aste geroago alde egingo du honen habitatik, eta ondoren, uztailearen azkenetan, negu-tokitarara abiatuko da, helduak baino hilabete t,erdi beranduago.

Kukuaren kantua ez da entzuten uztailetik aurrera, garai honetan uzten baitituzte helduek gure basoak. Gazteek, helduekin inolako loturarik ez dutelarik, beranduago ekiten diote migrazioari, gehienek abuztuaren bukaeran edo irailaren lehen hamabostaldian.



SORBELTZ ARRUNTA (*Apus apus*)

DESKRIBAPENA: besteengandik handiagoa delako eta hegan egiteko moduagatik bereizten da: bere hegaldi azkarretan norabidea zuzen mantentzen du bat-batean erabateko birak emateko.

Ziluetak, hego motz, luze eta kurbatuengatik eta buztan laburra, boomerang-a edo igitaia dakarkigu gogora. Gorputz osoko lumajea beltza eta homogeneoa da, kokotx zuria salbu. Altuera handian hegan egiten du eta espezie honen ezaugarri nabari bezala, bata besteari atzetik ibiltzeko zaletasuna aipa daiteke; habia egiteko erabiltzen dituzten etxe eta teilatuaren artean elkarri jarraitzen dioten bitartean oihu sarkorrrak botatzen dituzte.

TAMAINA: luzera: 16 cm. Hego luzera: 38-40 cm.

BIOLOGIA: hegazti hau ugaltzeko, inkubazioarako eta kumeak elikatze baxerik ez da pausatzen. Bere bizitzako beste iharduera guztiak airean burutzen ditu, hala nola, elikadura, atsedena, estaldura... Negutokitik apirilaren erdialdean edo maiatzaren heldu ohi da, eta azken hilabete honen bukaeran jadanik urteko txito-talde bakarra sortzeko ernaltzen



da. 15 edo 20 egunetako inkubazioa jasan ondoren txitoak jaioko dira, eta sei asteren buruan habia utziko dute, beraien kabuz baliatzeko gai batira. Giza ingurunekeo zarata ohiu da, eta nekazal inguruneetan ia da bikote



habigilerik geratzen. Irailak aldera hurrengo udaberrira arte uzten gaitu.

ELIKADURA: airean ehizatutako intsektu elikatzen dira.

HABITATA: habigintzako zona hirigunea da. Bere jatorrizko habitata labar harritsuetan badago ere, gaur egun badirudi ez dela hiri eta herrietatik aldentzen, bertako teilatuak eta teilatu gabetako zuloak habia egiteko erabiltzen dituelarik. Hala ere Bere azaugarri hiritarrak direla eta, hegazti hau behatu ahal izateko ez dago lokatze zikintzeko beharrik. Edozein kaletan ikustea nahiko arrunta da, baina enara azpizuri eta arruntarekin ez nahasteko kontu handia jarri behar da. Sorbeltz arruntak altuera handian hegan egiten du normalean, eta modu zaratsuan elkarren atzetik ibiltzen ikustea oso normala izaten da.

MALKOR SORBELTZA (*Tachymantis melba*)

DESKRIBAPENA: tamaina handiko sorbeltz, 55 zentimetro hego-luzera lor dezakeena. Gainaldean kolore arre argia izaten du, eta azpialdean zuria, arreak diren buztanpeko estal-lumak eta eztarria zeharkatzen duen marra izan.

TAMAINA: luzera: 20-22 cm. Hego luzera: 55 cm.

BIOLOGIA: malkor-sorbeltz espezie migrazioailea da, eta haren alerik goiztiarrenak apirilaren bukaeran ikus daitezke gure mendietan. Udazkeneko migrazio-mugimenduak aldiz, abuztutik eta azaroaren hasiera bitartean gertatu ohi dira.

16 edo 21 egunetako inkubazioa jasan ondoren txitoak jaioko dira, eta sei asteren buruan habia utziko dute, beraien kabuz baliatzeko gai batira.

ELIKADURA: airean ehizatutako intsektu elikatzen dira.



HABITATA: espezie hau ohikoa izaten da harkaitz berotan eta Euskal Herrian ia bakarrik aurki daiteke Arabako lurraldeko hegoaldeko mendietan.

ERLETXORI ARRUNTA (*Merops apiaster*)

DESKRIBAPENA: erletxori arrunta seguraski Europako hegaztietan nabarrena da, kolore hori, marroi, berde eta urdin bizietako lumajearekin. Arabazozo baten anteko tamaina duen larrik, nabarmena da bere moko luze kakkoduna, hegazti intsektujalea dela adierazten duena.

TAMAINA: luzera: 28 cm.

BIOLOGIA: habia egiteko ibai eta erreka bazterrak nahiago ditu, bertan hareazko ezpondak aurkitzen baititu, bere habia izango den zuloa egiteko aproposak. 6 edo 7 arrautza inguru erruten ditu eta hogeiren bat egunez txitatzen ditu.

Eguneko migratzaileak dira. Iberiar Penintsulako erletxoriek Gineako Golkoaren bazterretan pasatzen dute negua; maiatzaren hasiera aldean iristen dira Arabara, eta bertan irailera arte gelditzen dira. Ugaltze ondoren, erletxoriek erradiolaburreko mugimenduak egiten dituzten multzokadak osatzen dituzte. Horregatik, udako hilabeteetan, hegazti hauek umatzen ez diren lekuetan aurki daitezke, Arabako Mendialdean esate baterako.

Europako hegomendebalde osoan hedatze aldi dagoen espeziea da. Beraz, ez dirudi haren iraupenak inolako arazo aipagarririk duenik, salbuespen batekin, beharbada: migrazio aldiaren Mediterraneoko herrialde batzuetan ehiztariengandik jasaten duen jazarpen handia. Hala ere, Arabako populazioak bereziki minberak dira espezie honen umetze eremuaren iparraldeko mugan daudelako. Beraz, garrantzitsua da ugaltze koloniak jasotzen dituzten gunek zaintzea. Hori dela eta "interes berezikotzak" jota dago Arriskutan dauden Espezieen Euskal Herriko Katalogoan.

ELIKADURA: intsektuak ia bakarrik, batez ere erleak, erlastarrak eta liztorrak. Banakera

HABITATA: erletxori arruntak haran zabalak atsegin ditu, klimal mediterraniarreko aldeetan. Bertan koloniak osatuz umatzen da.

HEDAPENA: banakeraa-eremua mundu guztian zehar hedatzen da. Umetze aldiaren, Itsaso Meditraneoaren inguruan eta Asiako hegomendebaldeko estepetan biltzen da. Gutxi gora-behera Europako erletxori populazioaren herenak Iberiar Penintsulan egiten du habia; ertako alde guztietan banatzen da, iparraldeko eskualde hezeetan izan ezik.

Euskal Herrian, ia Arabako Errioxan bakarrik ugaltzen da. Eskualde horretan, ohizko hegazti da, bakan batzuk Ebro ibaian gora Puente de Larraino iristen direlarik.



ARGI OILARRA (*Upupa epops*)

DESKRIBAPENA: espezie nahastezina. Nabariak dira gibelaldeko, buztaneko eta hegoetako marra zuri-beltz deigarriak, gainerako gorputzaren kolore kanela arrosaxka eta batez ere, moko luze eta makurra, eta punta beltzeko gandor irtena dituen burua.

Hegazti polit honen ezaugarri askotarik bat bere tximeleta antzeko hegalaria da.

TAMAINA: luzera: 28 cm. Pisua: 55-80 g.

BIOLOGIA: herriaren eritiz, habiak darion kirats jasanezinagatik, argi-oilarra animalia gorozkiz egiten du bere habia, behi eta zaldienaz. Baina usain honen jatorria ez da hori -zere argi oilarra ez du inolako materialik eramaten habiara- baizik eta txiten uropigio delako guruinetik jariatzen da. Guruin hau buztangaineko ipurkonkorrean dago, eta ustezko harrapakariak urrun mantentzen laguntzeko sortzen dute giro nardagarri hori.

Jantzi koloretsu eta moko luze eta gaketuagatik bereizten da.

Moko honen bidez ornogabeko harrapakin-mota asko ehiza ditzake, hala nola inurri, zizare, kakalarido, kirkir, etab. ia kompetentziarik batere gabe, zeren hauek bere lurpeko gordeleku sakon eta teoriz seguratan harrapa ditzake.

Bizkaian umatzen diren argi-oilar



guztia, uda-hegaztiak dira, ugalgaraian bakarrik beha daitezkenak, migratzaile bait dira.

Gure lurraldeotatik udaberri eta udazkenean pasatzen dira, eta Penintsularen Hegoaldean neguan zehar geratzen dira horietariko zenbait.

ELIKADURA: intsektujalea da (kilkerak eta matxinsaltoak).

HABITATA: ibar eta ibai-ondoko zuhaitzetako biztanle tipikoa da, bere habiak egiteko zuhaitz kofadunak edo giza-eraikuntza egokiak daudenean behintzat.

Euskal Herrian oso urria da hegazti hau, lurralde honetan populazioek murrizte handia pairatu baitute.

OKIL BELTZA (*Drycopus martius*)

DESKRIBAPENA: kasko gorria izan ezik lumadi erabat beltza duen okila Belaeltz baten tamaina du, lepo luzea eta ardatz itxurako ziluetak.

TAMAINA: luzera: 45-48 cm. Hego luzera: 70-75 cm. Pisua: 300-350 g.

BIOLOGIA: Espezie geldikorra da, baina noizik behinka lekualdatze laburrak egiten ditu. Habia eraikitzeak, adar bat zulatzen du. Ohiko baso-espeziea, zuhaitz helduak dituzten basoetan aurkitu ohi dena. 4-5 arrautza erruten ditu eta okil gehienek bezala, bere habiak zuhaitzak zulatuz eraikitzen ditu.

ELIKADURA: batez ere intsektuek elikatzen da, bereziki zura industen duten espezieen larbez.



HABITATA: ondo garaturiko basoetan bizi da, bereziki pagadietan.

LEPITZULIA (*Jynx torquilla*)

DESKRIBAPENA: pizidoen barnean, berezitasun handiko espeziea da, bai anatomiagatik, bai ere ohiturengatik; horregatik benetako okilak biltzen dituenetik aparteko azpifamilia bat osatzen du.

Kolorea guztiz arrea du, tonu ilunagokoaz zer-bait marratua egonik; eta honegatik erraz berezi daiteke beste pizidoetatik, zeren gainbegirada batez hauena baino paseriformeen antza gehiago bait du. Zilueta luzatua da, tente mantendu ohi duen sama luzea duelarik. Udaberrian, landazabalean sarritan entzun daiteke bere apeu bereizgarria, “gueg, gueg, gueg, gueg,…” antzeko soinu jarraia.

Bere ohiturengatik zera esan dezakegu: ez dagoela basoari beste pizido guztiak bezain lotua, zeren garbiunetako lurtzorueta egoten bait da maiz horietako inurritegiak bilatzen, hauek bait dira bere elikagai nagusi. Habiaren egieran ere arras berezia da besteetatik: ez dute moko-kolpeztu hustutzen arbola, baizik eta barrunbe natural edo okilen habi zaharretaz baliatzen dira. Han jaioko da bere ume-sail ugaria.

Hegazti honen berezitasun nabarmena zera da: angeru harrigarrietan oker dezake bere burua. Euskarazko izena, hain zuzen, hortik datoriko. Baita ere honen migrazio-karaktere transahariar gogorrak beste okil egonkorretatik bereizten du. Ohitura urgariak eta inola ere deigarria ez den lumadia duenez, oharkabe gelditzen da espezie hau. Halere, kantu ozena du Okil Txikiarekin erraz nahas daitekeena.

Hori dela eta harrigarria da Aristoteles-ekk.a.ko IV. Mendean dagoeneko deskribapen aparta egin izana; honek agerian uzten du greziar filosofo eta naturzaleak zuen behatze-ahalmen izugarria. Bai latinezko izenak (torquilla) bai euskarazko (lepitzulia) eta gaztelaniazko (torcecuello) izen arruntek erre-



ferentzia egiten diote arriskua sumatzen duenean burua biratzeko duen gaitasunari. Inurri-txori ere esaten zaio (gaztelaniaz hormiguero), inurriak haren dietaren zati nagusia baitira. Okil berezi hauek martxoaren erditik dira ar heldu berriek beren lurraldea aldarrikatzeko egiten dituzten lehen erreklamak. Irailaren bukaeran desagertzen dira, Europako azken migratzaileek gure latitudeak zeharkatutakoan.

TAMAINA: luzera: 17-18 cm.

BIOLOGIA: arrak habia egiteko zuloak dauzkan lurraldea aukeratuko du, bera ez baita enborrak zulatzeko gai, eta ondoren bere kantua etengabeki errepikatuz emeari aukeratutako lekua erakutsiko dio. Emeak 7-8 arrautza errungo ditu, eta txitoak 12 egun inguru igaro ondoren jaioko dira.

Bikotea inkubatzen ari den bitartean (bai arrak eta bai emeak hartzen dute parte inkubazioan) arrotzen bat agertuko balitz, bere izenarekin bat datorren jarrera erakutsiko du: lumak lastu, eta gorputza tente mantentzen du, eta, burua atzera-aurrera eragiten duen bitartean, lepoari ere itzuliak ematen dizkio, modu erritmikoan mugitzeaz gain. Jarrera honekin sugearen antza hartzen du, eta honen aurrean etsaiak alde egingo du edo, une batez zalantzan geldituz, ihes egiteko aukera emango dio. Mugimendu hauek harraparien aurka edo emea bereganatzeko erabiliko ditu.

Inurritz elikatzen da batez ere, beldarrak, pupak ala intsektu helduak jaten dituelarik. Afrikara uztailakedo irailak aldera itzultzen dira.

HABITATA: lepitzuliak sakabanaturiko zuhaitzi hostoerokorrak dituzten eremu irekietan bizi dira. Zuhaitz zahar sakabanatuak dituen landazabalean bizi da. Haritzek, halizek, fruta-arbolek... eratutako zuhaitziak ere atsegin ditu, habia kokatzeko zuloak topa baditzake eta bertatik hurbil larreak baldin badaudez.

Euskal Herrian 1.500 bikote ingurukoa bide den populazioa estimatu da, eta horietako gehienak kostaldeko landazabalean banaturik bide daude. Edonola, atzeraka doa oro har Europa osoko banaketa-eremuan eta ziurrenik bai atlantiar Euskal Herrian ere; izan ere, pentsatzekoa da bertan nekazaritzarekin loturiko paisaia basogintzari loturiko jardueren kausaz eraldatu izanak hegazti honen populazioen endekapen nabaria eragin duela.

OKIL TXIKIA (*Dendrocopus minor*)

DESKRIBAPENA: okil txikia, ozta-ozta 13-15 zentimetroko luzera duena, hau da, txolarrearen tamainakoa, Europan bizi diren okiletan txikiena da.

Bizkaraldea beltziska du zerrenda zuriekin, eta sabela eta bularra kolore arrekoak, ildo beltz finez estaliak.

TAMAINA: luzera: 13-15 cm.

Pisua: 20 g.

BIOLOGIA: bere txikitasuna eta izaera iheskorrengatik, errazagoa izaten da mokoka entzuetara bera ikustea baino. Sedentarioa da. Urtarrilaren hasiera aldetik ekainera arte, bere mokoaren kolpe hotsak entzun daitezke goizeko lehen orduetan.

Apiril aldean, araldian sartzen da eta bikoteak biltzen dira. Arra argi bereizten da emearengandik pileoa edo txapela kolore gorrikoa duelako, emearena zuria delarik.

Estalketa maiatzaren erdialdean egiten da eta, ondoren, bikoteak bere kabia prestatzen du enbor erdi ustelen baten goiko aldean. Sarreran 3,5 zentimetro diametroa duen zulo batean datza kabia. Emeak bost edo sei arrauktze zuri jartzen ditu eta bi kideek 14 edo 15 egunez inkubatzen dituzte.

Kumeak 20-30 egunez egoten dira kabian, bitartean gurasok jaten ematen dietelarik. Uztailaren hasiera edo erdialdean dagoeneko kumeak hegan egiten ikasi dute, baina gurasoekin geratzen dira abuztuaren erdialdean beregain bizitzen hasi arte.

Txori hau gero eta bakanagoa izatearen arrazoiak bi dira: alde batetik, baso zaharren suntsitzea eta horien ordeztu konifero sailak landatzea, habitat honi itzurtzen baitzaio hosto galkorreko basoetan tartekaturik ez badago; eta



bestetik, nekazaritzaren pestizida gehiegi erabiltzea berak jaten dituen intsektu eta landare-zorriak hiltzeko.

ELIKADURA: okil txikia ez da enbor-azalean aztarrika ibiltzen: bere janaria adaburuetan bilatzen du, batez ere landarezorriek jotako adarretan, horietara bere ahaideak, okil handiak, ez baitira iristen. Landare-zorriez gainera, inurriak, armiarmak, sitsak eta euliak jaten ditu.

HABITATA: ohiko baso espeziea, zuhaitz helduak dituzten basoetan aurkitu ohi dena.

OKIL ERTAINA (*Dendrocopus medius*)

DESKRIBAPENA: neurri txikiko moko arotz honek 20 cm-ko luzera lortzen du eta batzutan Okil “picapinos” arruntarekin nahasten da. Burua zuria da, txano gorri batekin. Sabela arrosa da. Lepoa zuri motaduna. Eztarria eta bularra zurizikin koloretakoak, sabelaldean markakin.

Bizkaraldea beltzarana da sorbalda-luma zuriekin. Erremige beltzak zuri hesolez hesiak. Isatsa beltza da kanpoko luma zuriekin. Moko eta hankak zuriak dira.

TAMAINA: luzera: 20 cm.

BIOLOGIA: hegazti bakartia, iheskorra,



zuhaiztar bizitzakoa da. Oso bizkorra izaten da enborretatik igotzerakoan, janariaren bila mokokatzen. Bere hegaldia uhindua da, beste pizidoena bezalakoa. Zahar edo gaixo dauden zuhaitzen enborretan egiten ditu habiak, sarbide borobil batekin, tapiza-

tu barik. Urtean behin bakanrik jartzen du 4-8 arraultzeko errunaldi bat. 450 bikoteko populazioa estimatzen da gutxi gora behera, Penintsula Iberiarrean %20. Europako mendebaldearen populazio osoa Penintsula Iberiarra kontutan izanda ere, gutxitzen ari da. Gaur egun egiten den basoko erabilera, habitata eraldatzen du eta horren ondorioz elikatze baliabideak eta habiak egiteko lekuak gutxitzen dira. Kontserbaziorako neurriak, basoak irizpide ekologikoekin uztartze-rahelbideratu behar dira, espezie honen eta beste basoko espezieen iraupena lortzeko.

ELIKADURA: batez ere intsektuak eta landare batzuk jaten ditu, fruituak eta haziak adibidez.

OKIL BERDEA (*Picus viridis*)

DESKRIBAPENA: hegazti zurgin deritzatenetan ugariena eta ere berean, Euskal Herrian beha daitezkeen hauetako handiena dugu hegazti hau.

Nagusiki berde kolorekoa den okila, ipurtxuntxur horixka, begialor beltza eta kapirote gorrimina dituena. Gainerako okilak bezala, haien erreklamoak salatu ohi ditu, baina zailagoa da zuzenean ikustea.

TAMAINA: luzera: 30-33 cm. Pisua: 180-220 g.

BIOLOGIA: edozein urte-sasoitan entzun daiteke bere irrintzi berezia, gehien bat udaberrian, barrutikoitasun handiko hegaztia bait da.

Habia egiterakoan, ugalbikoteak zuhaitz hostogalkor bat aukeratzen du (gaztainondoa dela, gereiziondoa edo haritzondoa) eta inoiz ere ez pinurik, honek jariatzen duen erretsina kaltegarri zaiolako, seguraski. Aukeratutako zuhaitzean, eta bere moko indartsuaz baliaturik, zulo biribil batez kanpoarekin komunikaturik dagoen ganbara bat hondeatzen dute. Txitak batez ere intsektu eta zizarek elikatzen ditu, eta habiatik irtetzean helduak baino lumaje arreago eta pikartakoa dute. Horrelako hegaztien habiak elkarren jarraiko urtetan erabili ahal dira ugaltzeko, eta neguan aterpe bezala balio izaten diete basoko beste espezie batzuei, hala nola, muxar grisei eta saguzarrei.

ELIKADURA: oso hegazti lurterra denez gero, okil berdeak batez ere lehorrean harapatzen ditu gogozko inurriak. Intsektu xilofagoz ere (egurjaleak) neurri handian elikatzen da, eta bere mihi luze, eranskorrez baliatzen da haiek bere gordelekutik ateratzeko. Honela, intsektu-mota hauek ugaltzen ez utziz, zuhaiztientzat kaltegarri ez izateko moduko mailan eusten laguntzen dute.

HABITATA: espezie geldikorra da, eta mota guztietako zuhaizdun eremuetan aurkitzen da; edonola, haren haibat motaren



gogokoena habiak egiteko zuhaitz helduak dituzten pasaia erdirekiak izaten dira.

Okil berdea oraindik arrunta da oihan eta sastrakatan, baina habia egiteko zuhaitz egokiak gero eta gutxiago egoteak faktore mugatzaile bezala jokatzeko du, eta bere goraldean dauden populazioen handitzea eragozten.

Espeziaren ezaugarriak dira hegada uhindua eta sarrera zirkularreko ohiko habia, zuhaitz baten enborrean zulatua.

OKIL HANDIA (*Dendrocopos major*)

DESKRIBAPENA: lumaldia nagusiki zuri-beltza duen okila. Gainera, nabarmenak dira hegoen gainaldeko barne-ertzeko orban zuri handia eta buztan azpiko kolore gorria. Ar helduak erraz bereizten dira garondo gorriagatik, eta gazteak, kapirote osoa gorria dutelako udazkenaren erdira arte. Gazteek ere gorria izaten dute kapirotera eta horrela irauten die azaroko muda arte.

Gazteek ere gorria izaten dute kapirotera eta horrela irauten die azaroko muda arte.

TAMAINA: luzera: 22-23 cm. Pisua: 70-90 g.



BIOLOGIA: udaberiko hiletan entzungo dugu batez ere, okil handiak hasten duen komunikabidezko mekanismo landua: bere mokoarekin adar lehor eta kofadun baten kontra

bizkor eta gogorki mailukatzen du, oihan guztian zehar entzun daitekeen "danbolindoinu" berezia lorturik; basoan, hain zuzen, seinale-akus-tikoak ikusmenezkoak baino eraginkorragoak dira. Honela bere generokideak oharterazten ditu, bere barrutiaz jabetu dela jakin araziz, agerian jartzeak lekarkiokeen arriskurik gabe egin ere. Ugalohiturak okil berdea eta beste generokideen antzekoak dira, zuhaitzetan kofaue-nak hondeatzen ditu.

4-7 arrautza erruten ditu eta, okil gehienek bezala, bere habiak zuhaitzak zulatuz eraikitzen ditu.

ELIKADURA: batez ere intsektuez elikatzen da, bereziki zura industen duten espezieen larbez.

HEGATXABAL ARRUNTA (*Alauda arvensis*)

DESKRIBAPENA: ertz argiko hego zabalak eta buztanaren alde bakoi-tzean marra zuriak dituen tamaina handiko alaudidoa dugu hau.

Ezaugarri bereizgarritzat buruko motots txikia eta lurrarekiko mimetiko den kolore lurkara aipa daiteke; bizkarra arrea, bularra zerrendatua eta sabalalde argia direlarik. Txioka hegan egin ohi du, eta beste alaudi-doengandik bereizteko, tamaina handiagako, ondo markatutako bekain zuria, zerbait luzeagoa den buztana eta sabalalde argiak kontutan hartu behar dira. "Benetako kalandria" zertxobait handiagoa da, moko horia du eta lepoaren alde bakoitzean bi orban beltz dauzka, eta horretaz gain, hego-ertzaren atzealdean marra zuria dauka. Hegatxabala, saldo handi eta jarraietan ikusi ohi da migraziogaraian zehar.

TAMAINA: luzera: 17-18 cm.

BIOLOGIA: espezie lurterra da, eta behin leku batean finkatuz gero, es du aieratzeko zaletasunik agertzen, nahiago du ezkatatu eta makurtu zuzenean hegan egin baino.

Apirilak eta uztaileak aldera behar lehorren artean eta lurreko sakonuneetaz baliatuz, habia eraikitzen du. Belar lehorrez eta ilez egindako piloaren gainean, emeak 3-4 arrautza erruten ditu, 10-11 egun pasa ondoren txitoak jaioko direlarik. Beste 11 egun habian eman ondoren, txitoak hegan egiteko eta beraien kabuz



elikatzeko gai dira, eta momentu honetan gurasoek bigarren txitaldia burutzeko aukera probetxatzen dute.

Udazkeneko pasea, irailaren bukaeratik azaroaren erdira arte gertatzen da, eta udaberriko aldiz, otsailaren erditik martxoaren azken egunetara arte bestea bezain nabaria ez bada era.

ELIKADURA: udazkenean eta neguan haziz, garauz eta kimu samurrez elikatzen da, baina ugalgarai hurbiltzerakoan, intsektujale bihurtzen da, armiarnak, harrak eta molusku txikiak ere harrapatzen dituelarik.

HABITATA: ohikoa izaten da eremu irekietan. Euskal Herrian oso ugaria da mediterranearen isurialdean, batez ere, zereal-labrantzak eta larrediak dituzten eremuetan. Atlantiar lurraldean, espezie honen populazioak mogaturik daude 800 metrotik gorako txilardi eta larredietara.

KALANDRIA (*Melanocorypha calandra*)

DESKRIBAPENA: kalandria bizkaralde arre kriptikoa eta sabalalde argia dituen txori sendoa. Lepoan iduneko-itxurako orban beltz nabaria du eta mokoa kono-formakoa eta sendoa du.

TAMAINA: luzera: 19 cm.



BIOLOGIA: habia lurrean egiten du, belar eta sastraka artean ezkutatua.

ELIKADURA: haziak eta ornogabe Txikiak jaten du.

HABITATA: leku irekiak, soroak eta

etxeak atsegin ditu. Euskal Herriak, leku lehor eta beroetan bizi da.

50 bikote baino gutxiagoko populazioa estimatzen da Euskal Herrian.

TXORIANDRE ARRUNTA (*Calandrella brachydactyla*)

DESKRIBAPENA: neurri txikiko hegazti honek, asko nabarmentzen ez dena, hamabost zm-ko luzera eskura dezake. Bere itxura orokorra lur-antzeko argi kolorekoa da. Dorsal kolorakate gorri nabar, marra edoildazka ilunekin. Buruko goialdea gorria da, pixka bat zutituta egon ahal den harrapari-txanoaz. Beheko aldeak zuri zikinak dira, albo eta bular marradunekin. Lepoaren albo bakoitzean txikia baina nabargarria den mota beltz bi ditu. Arre hegokak zuriz azpildutak. Moko horia eta hanka nabarrak.

TAMAINA: luzera: 15 cm. Pisua: 20-28 g.

BIOLOGIA: ohitura taldekoiak dituen hegazti honek baxu hegan egiten duten bandoak osatzen dute, eta aldi askotan oharkabetuta igarotzen dute lurlean. Zuhaitzetan eta zuhaisketan ia ez da auzatzen. Habia lurzoruko zokogune txiki batean egiten du, mulu batzuen babesean. Kopa sakon baten itxura du hostoz, adarrez, lumaz edo ileaz egindakoa. Urtero hiru edo bost arraultzeko bi errunaldi izaten du.

Espezie honentzat estimatzen den dentsitatea 0,4 indibiduo 10 hektarietan izaten da. Ez da ezagutzen jarraitzen duten jaidura, baina populazio penintsularra atzerantz doa.

Beste espezie estepario batzuei gustatzen zaien bezala, gai diren erdiguneen urritasuna alderdi mugagarri bezala dugu Euskal Herrian. Habitaten erabilgarritasunen beherakada praktika intentsibozko nekazaritza dela



eta, Penintsula Iberiarrean dauden populazioen atzerakada bortxatu du.

Kontserbaziorako neurriak Mediterraneo -aldean okupatzen dituzten ingurugiroak mantentzera bideratu beharko lirateke, gaur egungo ustiaketa sistema mantenduz.

ELIKADURA: artropodoz eta haziz elikatzen da.

HABITATA: Mediterraneo inguruan banatzen den espeziea da. Gure lurraldean, Arabako Errioxan aurkitzen da, sakabanatutako

beste nukleoekin. Udako espezie bezala jokatzen du. Baskaleku xerofiloak dituzten lursail alferretan eta mahastietan bizitzen da, orokorki leku erdi idorretan eta estepetan.

denean, edo airean dagoelarik bere kantua egiten duenean. Edonola, honen kantua ez da hegatzabal arruntarena bezain ozen eta luzea.

TAMAINA: luzera: 15 cm. Pisua: 24-35 g.

BIOLOGIA: Euskal herrian eta Penintsulako iparraldean ugaltzen diren pirripio gehienek, ugaltze-eremuak uzten dituzte neguan, baina ez dakigu zein diren haien negu-lurraldeak. Hegatzabal arrunta moduan, kantua, delikatu eta armoniosua dauka eta gure lurretan azken hau baino urriago da.

ELIKADURA: intsektuak eta haziak jaten ditu.



PIRRIPIOA (*Lullula arborea*)

DESKRIBAPENA: aurrekoa baino txikiagoa da eta isatsa motzagoa du. Hegatzabal arruntak baino leku arbolatsuagoak maite ditu: zuhaiskak dituen eremu bat edo baso-ertzak, esate baterako; elektra hari-terriaren kableetan kokatzea gustatzen zaio.

Lumaldia arrea duelarik, ez da erraza ikusten, batez ere lurlean alde batetik bestera dabilenean haren elikagai nagusia diren intsektu eta hazien bila. Errazago ikus daiteke zuhaixka baten gainean pausatzen

KUTTURLIO MOKOLABURRA (*Galerida theklae*)

DESKRIBAPENA: hamabost zentimetrotako luzerara heltzen ia ez den lurreko hegazti txikia. Kutturlio arrunta-rekin konparatuz zaila da desberdintzea. Goiko partea arre grisa da luzerako marraz eta mora ilunez. Gorri koloretako isatseko estalki lumak hego grisekin. Arre iluneko lumazko gandorarekin, oso berezia dena, altxatuta daramana. Eztarria argia, alboak gorrikoz zikindutak. Beheko parteak argi nabar, motarik gabe, bularrean dituen ospetsu formadunak izan ezik. Arre koloretako mokoa eta hankak dituzte.

TAMAINA: luzera: 15 cm. Pisua: 20-27 g.


BIOLOGIA: hegazti bakarti honek bikoteka edo talde txikiak osatzen ikuzia izan da. Hegalaldia apala da, uhindu, aldi askotan pausatzen. Habian lurzoruko zokogune txiki batean kokatzen du, landarez, ilez eta luma egina; hiru edo lau arraultzeko errunaldiak urtean bi edo hiru alditan izaten dute.

50 bikote baino gutxiagoko populazioa estimatzen da Euskal Herrian. Penintsulan dagoen populazioa atzerakadan dago.

Beste espezie estepario batzuei gertatzen zaien bezala, gai diren erdiguneen urritasuna alderdi mugagarri bezala dugu gure lurraldean.

Habitaten erabilgarritasunen beherakada praktika intentsibozko nekazaritza eta oihaneztapena direla eta, Penintsula Iberiarrean dauden populazioen atzerakada bortxatu du.

Kontserbaziorako neurriak Mediterranealdean okupatzen dituz-



ten ingurugiroak mantentzera bideratu beharko lirateke.

ELIKADURA: haziz eta artropodoz elikatzen da.

HABITATA: Afrikako Iparraldean sakabanatzen den espezie honek zinta Atlantikarra izan ezik, Penintsula Iberiar guztira iristen da. Gure inguruko lurraldeetan, Mediterraneoko

lurraldeetatik egoten da banaketa mugatuarekin. Larre xerofiloko lurralde mistoetan bizitzen da, ezkaia, romeroa eta karraska dauden zuhaixka gubxi landutako aldeetan, eta harrietak ere erabiltzen ditu.

ENARA AZPIZURIA (*Delichon urbica*)

DESKRIBAPENA: askotan, espezie hau enara arrunta-rekin nahasten da, oso ezaugarri desberdinak baditu ere. Enara azpizuria txikiagoa da, eta ipurtxuntzur zuriak, bizkarreko kolore beltzaren ondoan eskaintzen duen kontrastea hegan doanean bereizteko datu garrantzitsua da, enara arruntarena, bizkar osoa bezala, beltza baita. Honetaz gain, enara azpizuriak ez du tonu gorriskarik agertzen, ezta buztanari horren forma urkilatua ematen dioten alboetako luma luzeak ere.

TAMAINA: luzera: 13 cm. Hego-luzera: 26 cm.

BIOLOGIA: espezie udatarra da eta apirilaren lehen hamabostaldian heltzen da Euskal Herriko ugaltze-lurraldeetara. Habiak kolonia txikiak eratuz egiten ditu, batez ere giza eraikinetan kokaturik, edonola, oraindik ere aurki daitezke zenbait habi haren jatorrizko habitaten, alegia, zenbait mendialde eta itsas labarretan.

Bola-itxura izaten du, eta landare-zuntzez elkarlotutako buztinezko bolatxo egindako egitura hau, bametik lumentz estalita egoten da. Urtero bi errunaldi egoten dira, eta zenbait urtetan baita hiru ere, aldi bakoitzean emeak 4-5 arrautza erruten dituelarik. Inkubazioa 15-17 egunetan zehar luzatuko da eta bai arrak



eta bai emeak burutuko dute. Txitoek 20-25 egun gehiago emango dituzte habian, eta gero gurasek aldi batez airean elikatzen dituzte, hurrengo txitaldiak elikatzeko laguntzeko prest egon arte.

Ugaltze-sasoia bukatutakoan, enara azpizuri gehienek Afrikako negu-lurraldeetara jotzen dute.

ELIKADURA: hegan egiten duten bitartean ehizatutako intsektuz elikatzen da: euliak, eltxoak, tximeletak

UHALDE ENARA (*Riparia riparia*)

DESKRIBAPENA: enara familiako hegaztia. Lucera: 13 cm artekoa. Arre kolorea. Eztarria eta beheko parteak zuriak. Iduneko edo bularreko zerrenda arrea dauka. Isatsa, motza eta gutxi muxarratua. Mokoa eta hankak arreak.

TAMAINA: luzera: 13 cm.

BIOLOGIA: hegazti migratzailea da. Saharaz bestaldetik etortzen da eta uda hemen pasatzen du.

Apiriletik uztailra ugaltzen da.

Migratzaileak martxoaren erdialdetik maiatzaren hasiera bitartean agertzen dira, baina baita abuztuaren azkenaldetik urriarenhasiera bitartean ere. Bere hegada azkarra, bihurria eta bizia da; lurretik baxu edo eremu irekietan egiten du hegan.

hondarrezko itsaslabar eta ezpondetan egindako galerietan hazten dituzte umeak.

Arrek eta emeek mokoka eta aztarrika 1m-ko luzera duten galeriak egin ditzakete; galeriek amaieran luzez, lastoz eta zainez egindako ganbara izaten dute.

Ekaineko lehen egunetan emeak 4-5 arrautz zuri jartzen ditu; arrautzak nola emeak hala arrak zaintzen dituzte 12-16 egunez. Txitoak gurasoek hazten dituzte; txitoek, bestalde, 20 bat egunen buruan uzten dute habia.

ELIKADURA: urtetan zein ur inguruetan hazten diren diptero (euliak, Moskitoak,...), efimera eta beste edozein intsektu hegalaria asko jaten ditu. **HABITATA:** ibar zabal eta irekietan bizi da, hain zuzen ere ur bareak daramatzaten ibaiek ibaiertzetan eragiten dituzten lur urratze eta jausien ondorioz sortzen diren lurrezko ezpondetan. Berez leku hazeak diren ezpondetan ere aurkitu da; gainera, ureztatzeko ur putzu, enbaltse eta ale-erazketetako malkarrak aprobeztatzen ditu



HEDAPENA: Europa, Asia eta Iparramerikan barrena zabal-duta dago. Iberiar penintsulan ere bai, Portugaleko eremu handi batean izan ezik.

Euskadin txito-koloniak Arabako azpikantauriar zein mediterraniar zonetan daude, eta Gipuzkoako Oria ibaiko bi gunetan ere bai.

Arabian, hain zuzen toki hauetan daude: Tumecillo ibaian eta Omecillo ibaiaren erdi parean eta behealdean. Baias ibaian. Zadorra ibaiaren erdi parean. Ega ibaian. Ebroren ibaiertzean. Uhalde enara Arriskuan Dauden Ezpezieen Euskal katalogoan sartuta dago "Kalteberen" kategorian, Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 9ko 167/1996 Dekretuaren arabera.

Ondorioz, ez da onartuko: hegazti hau (kume eta arrautzak barne) hil, harrapatu, jarraitu edo zirikatzeke asmoz egindako baimendu gabeko edozein ekintza; ezta ere, haren habitata, habiak eta ugalketa, atsedean edo elikadurarako gunek hon-datzea.

HAITZ ENARA (*Ptyonoprogne rupestris*)

DESKRIBAPENA: enara honek gainaldea arre iluna du eta azpialde arre argia. Eztarria pikarta du eta buztanaren goiertzean orban zuri txikiak zerrenda bat.

TAMAINA: luzera: 14 cm.

BIOLOGIA: kolonietan ugaltzen da eta buztinezko habiak eraiki eta itsas edo mendi-labar baten arroka-irtenune baten azpiko horma bertikalean itsasten ditu. Halaber eraiki ditzake habiak utzitako harrobietan edo eraikinetan, hegalkinak baldin badituzte. Mediterranearen espeziea da eta Euskal Herrian du bere banaketaren ipar-muga. Hori dela eta, kolonien kokapena aldakorra



den arren, hegoaldeko orientazioak nahiago bide ditu.

Haitz-enara da berez migratzailea ez den enara bakarra. Edonola, oso iparraldera edo oso goian kokaturiko lurraldeetako koloniak osatzen dituzten hegaztiak, kostalderantz edo babesturiko haran jakin batzuetara jotzen dute neguan, klimabaldintza hobeen bila. Iberiar Penintsulako hegazti batzuek Gibraltarreko Itsasartearen zeharka deza-

kete, negua Afrikaren iparraldean emateko.

ELIKADURA: arrasean eta sigi-saga askorekin hegan eginez, askotariko intsektu mordo bat harrapatzen dute airean.

HABITATA: amildegi eta labar arrokatsuak.

ENARA ARRUNTA (*Hirundo rustica*)

DESKRIBAPENA: hegazti ezagun honen ezaugarriak bereizgarriena hegaldi erraz eta lirainetan zehar burutzen dituen iskin, erritmoaldaketa, planeatze eta zut jauziak dira.

Buztan luzearen puntan kanpoaldeko luzez osotutako bi pintzel luze bereiz daitezke. Gorputzean, distira urdinez zipritindutako kolore beltza da nagusiki, honen ondoan bular zuriak kontraste ederra sortzen duelarik. Paparrean eta kopetan, berriz kolore arre-gorrika agertzen du. Sorbeltz eta enara azpizurriekin nahas daiteke, baina lehenengoa ia erabat beltza den bitartean, bigarre-na, txikiagoa izateaz gain, ipurtxuntzur (bizkarreko beheko parteak) zuria du. Honetaz gain, bietako batek ere ez ditu kanpoaldeko lema-luma luzeak aurkeztu, ezta paparreko kolore gorrika ere.

TAMAINA: luzera: 20 cm. Hego luzera: 33-34 cm.

BIOLOGIA: udaberriaren hasieran negu-tokitik, hau da, Afrika austral eta tropikaletik itzultzen da, urtero erabili ohi duen toki beraren bila. Habia, baserri-atarietan, kortetan... eraikitzen du, beti ere habia gainazal bertikal batean kokatuz, posible izateko-tan, gainean sabaia duten lekua bilatuko duelarik. Lurrean biltzen duen buztina listuarekin eta belarrarekin nahastuz, habiari forma emateko erabiliko dituen bolatxoak eratzen ditu.

Habia goiko partetik irekia da, eta barnaldea luzez estalita dago. Emeak 4-5 arrautza erruten ditu, eta 15 bat egunetan



zehar inkubatuko ditu. Bi edo hiru aste igaro ondoren, txitoek habiatik alde egiten dute, eta kumeen bizitzako garai honetan zehar gurasoek airean elikatuko dituzte, habiara atsedean hartzeko soilik itzuliko direlarik. Irailak aldera Afrikarantz abiatzen dira berriro ere.

Orohar arriskutan ez dagoen arren, orain dela zenbait urtetik hona badirudi Europan habia egiten duten enaren kopurua gutxi egin dela. Horren zergatiak, habia egiteko lekuen gailan (herrietan kortak eta beste instalazio ireki batzuk desager-

tzearen ondorioz) eta intsektiziden erabilera kontrolgabe-an bilatu behar dira.

ELIKADURA: enaren elikadura airean ehizatutako ornogabeek osotzen dute. Nekazaritzarako lagungarri bada ere, honek, askotan, heriotza ekartzen dio, pestiziden erabilera dela eta.

HABITATA: eremu zabaletara moldatutako hegaztia da. Habia eraikuntzetan egin ohi du, barnealdean, ahal badu. Nekazal ingurunekeo habitak eta eraikuntzak nahiago ditu etxe ugaz betetako hiriak baino, azken hauek enara azpizuriaren gogokoak direlarik.

Ehizatzekeo garaian, soroetan, abereak dauden belardietan eta putzetan ibiltzen da.

HEDAPENA: enara arruntaren umetxe eremua Eurasia eta Ipar Amerika gehienean eta Afrikako iparmendebaldean hedatzen da, Iberiar Penintsulan eta Balkanetan ohizko espeziea da, ia lurralde guztian zehar banatuta dagoelarik. Europako populazioek Saharatik hegoaldera, Afrikako erdialdean eta hegoaldean pasatzen dute negua.



UDA TXIRTA (*Anthus trivialis*)

DESKRIBAPENA: tamaianari begiratuta, txolarrea-ren antzekoa da, baina bere ziluetan lerdina eta xehea da. Bizkar arrea du, eta bularrean eta alboetan marra arre ilun ugariz apaindutako kolore horis-ka agertzen du. Begiaren gainean bekain zuri-horis-ka agertzen du, eta buztaneko kanpoaldeko lema-lumak argiak dira.

Euskal herrian jokaera negutarra aurkezten duen negu-txirtarekin nahas daiteke, baina behaketa-garaia alde batera utzita (udatxirtak neguan alde egiten du), negu-txirta zertxobait handiagoa da eta hanka argiak ditu (kolore arre argikoak). Gainera, udatxirtak bularrean eta alboetan kolore ilunagoa agertzen du, eta bertako orbanak markatuagoak dira.

TAMAINA: luzera: 15 cm. Pisua: 20-25 g.



BIOLOGIA: martxoak edo apirilak aldera agertzen da, eta maiatzean jadanik habia egiten dabil. Habia lurrean egin ohi du, zuhaitz edo zuhaiskaren baten ondoan. 4-6 arrautza erruten ditu, eta emeak 15 egunetan zehar inkubatuko ditu, urte batzuetan txitaldi bat baino gehiago aurrera atera daitekeelarik. Lurraldekantua eta hegaldia oso deigarriak dira: lurretik edo zuhaiskaren batetik, etengabeki kantatzen duen bitartean, goranzko hegaldia hasten du, eta bere pioa, zeharka planeatuz berriro ere lurrean, adarren batean edo zuhaiskaren batean pausatu arte mantentzen da, jaitsieran, hegoak erdizka irekiz eta buztana abaniko modura zabalduz abiadura murrizten duelarik. Jaitsiara bukatzeaz dagoenean, txorrotzio-mordo bereizgarria sortzen du.

Abuztuaren bukaeratik urriaren erdialderarte migrazio-mugimenduak hasten dira, eta txirta honek, Saharako hegoaldean duen negu-tokiraino luzatuko den ibilbideari ekiten dio.

ELIKADURA: lurrean harrapatutako intsektuz elikatzen da.

HABITATA: zuhaitz eta zuhaiskak dituzten eremu zabaletan bizi da. Batez ere, landazabala, kostaldeko otadi-iratzedia eta baso bakanetako soiluneak eta bazterrek gogoko ditu.



NEGU TXIRTA (*Anthus pratensis*)

DESKRIBAPENA: Txori hau kostaldeko landa eta ibarretan ikustea arrunta izan ohi da, eta neguan gure oinen aurrean hegan aterako da, "tsiik, tsiik, tsiik" bezalako soinuak sortzen duen bitartean eta hegoak jarraiki astinduz hegaldi lasaia burutu ondoren, zertxobait aurrerago pausatuko da. Arre kolorekoa da, marra beltzez apaindutako bular arre argia agertzen duelarik.

Udatxirtarengandik bereizteko kolore argiagoa, itxura nolabait lirainagoa, eta hanka ilunak kontutan hartu behar dira.

TAMAINA: luzera: 14 cm. Hego-luzera: 25 cm. Pisua: 25 g.



BIOLOGIA: lehenengo negu-txirtak irailak aldera agertuz doaz, baina gehienak urriaren bukaeran edo azaroaren hasieran heltzen dira. Talde nagusiaren etorrera bat-batean gertatu ohi da, oso eguraldi hotza egon ondoren, hotz-boladetan zehar landazabala hegazti hauetaz erabat bateta egoten delarik. Kostaldearen gertutasunaren ondorioz sortzen den eguraldi epelagoa dela eta, lur-zoruaren ustiaketa abeltzantzara zuzendu dela kontutan hartuta, kantauriar landazabalean neguan beraien iharduera mantentzen duten intsektuen dentsitate altua dago.

ELIKADURA: intsektuz elikatzen da.

LANDA TXIRTA (*Anthus campestris*)

DESKRIBAPENA: hamabost zentimetro-tako luzerara heltzen ia ez den tamaina txikiko hegaztia da. Arre-grisaska koloretza orekatu dortsala, zurizko bekain nabarmenarekin. Beheko parteak zuri krematsuak dira eta bularra eta alboak gaztain-gorritzkoak, arinki arraiadunak. Hego nabar albo horiekin lumetan eta albo krematsudun arre isatsa. Arre moko ilun eta hanka horiak dituzte.

TAMAINA: luzera: 15 cm. Pisua: 20-25 g.

BIOLOGIA: lurreko habitetan bizkor mugitzen dira. Hegalaldi baxu eta uhindu. Migrazio epeetan talde txikiak osatzen dute. Lurzoruan kokatutako zokogune batean landarezko hondakinekin egindako kopa antzeko kabi tapizatua eraikitzen du. Normalean lau edo bost arrautzeko bi errunaldi urtero gertatzen dira. Euskal Herrian 3500 bikote daudela estimatzen da. Penintsularen eta Europaren populazioek atzerakada jasaten ari dira. Ingurugiro osoan egindako erabileran datza populazioen banatzeko aldean atzerakada, hau da, baso-berritze naturala edo artifiziala zuhaiska meheekin, abeltzantza estentsiboaren bertan behe-razia uztea, eta nekazaritzarako lur tradizionalen eraldaketa laborantza intentsibora bideratuz.

Kontserbaziorako neurriak habitatan erabilpen ekologiko batera bideratu behar dira, artzaintza eta heskai egon



ahal den lekuak mantenduz.

ELIKADURA: lurzoruan harrapatutako artropodoz elikatzen da.

HABITATA: zuhaiska herrestariak edo larre xerofiloak dauden erliebe leuneko eta ingurune lehorreko zonalde desforestatuetan bizitzen dira, eta hesiz inguratuta dauden barrazko laboretan era bai.

Europar, Asian eta Afrikaren iparraldean dagoen espeziea da. Gure lurraldean, behekantabriako erdi meridionala eta Mediterraneoko zonaldeetara mugatzen da, populazio berreiatu batzuekin zonalde honetatik at. Saharatik migratzen duen udako espezie bat da.

MENDI TXIRTA (*Anthus spinoletta*)

DESKRIBAPENA: mendi-txirta bizkarralde arre-grisaska eta sabelalde zuriska dituen hegazti liraina da. Moko iluna eta luzea, hanka ilunak eta isats luzea ditu. Udan, mendi-txirtek gibelaldea eta kapirotea arre grisaxka kolorekoa dituzte, eta azpialdean aldiz zuriak, bularra arrosaxka izanik; neguan, gainaldeak ilunagoak izaten dituzte eta bularra zirintaduna. Bereziki migrazio-paseetan. Negu txirta ugariarekin lagunduta azaltzen da. Edonola, ez dira zailak bereizten: Mendi-txirta, Negu-txirta baino handia-



goa da, eta hanka beltzak ditu eta bekain zuria markatuagoa du. Araldi-kantua igortzen du airean gora doanean eta lurrera itzuli arte.

TAMAINA: luzera: 16-17 cm. Pisua: 21-36 gr.

BIOLOGIA: Urkiola, Gorbea, Orduña, etab. etako txilardegi nahiz belardi gisako barnealdeko zona altuetan soilik egiten du habia.

HABITATA: Euskal Herrian, goi-larredi eta txilardietan aurki daiteke: atlantiar lurraldean, 700 m-ko altueratik gora eta Arabako hegoaldeko mendietan aldiz, 1.250 metroko altueratik.

BUZTANIKARA ZURIA

(*Motacilla alba*)

DESKRIBAPENA: ezaugarriarik deigarriena, lema-luma zuriz apaindutako buztan beltz luzea da, lurretik dabilen bitartean etengabe gora eta behera kulunkatzen baitu. Azpitik zuria da, eta ipurbuntxurak, bizkar osotik zabaltzen den kolore gris argi bera du. Zilueta lerdin eta xehea du, nolabaiteko dotoretasuna dariolarik. Bere taldearen bereizgarria den hegaldi uhinduan, buztaneko kanpoaldeko lema-lumak nabarmen diren bitartean “Txuiiii” bezelako soinu laburra errepikatzen duelarik. Ez dago beste buztanikarekin nahasterik, beste biek kolore horiak agertzen baitituzte.

TAMAINA: luzera: 19 cm. Hego-luzera: 30-32 cm. Pisua: 20-27 g.

BIOLOGIA: Euskal Herrian sedentario modura jokatu du, neguan bere populazioa nabarmenki handitzen delarik. Emeak habia horietan, zubietan, teiletan... eraikitzen du, ondoren 5-6 arrautza errungo dituelarik. Inkubazioaldia 12-14 egunetan zehar luzatzen da eta, eklosioaren ondoren, txitoek oraindik beste 15 egun emango dituzte habian. Noramalean urtean bi txitaldi egoten dira.

Neguan zehar, etzalekueetan hamamaka hegazti ere elkartzen dira.

ELIKADURA: intsektuz elikatzen da, eta gehienetan lurtean harripatzen baditu ere, airean ehizatzeke gai ere bada.



HABITATA: habitat guztietan aurki dezakegu, kostaldetik, landa, erreka, zabortege, herri eta beste hainbat lekuetaraino, bsoetan izan ezik, eremu zabaletara moldatutako txoria baita. Habitatak buztanikara-mota desberdinen artean banatuko bagenitu, honelako saikapena egingo genuke: buztanikara horia erreka, erreka eta latsetan; larrebuztanikara ingurune heze, padura eta urasetutako beste hainbat eremutan; eta zuria giza inguruneetan, bertan arrunt samarra denez, erraz beha daitekeelarik.

buztanikara ingurune heze, padura eta urasetutako beste hainbat eremutan; eta zuria giza inguruneetan, bertan arrunt samarra denez, erraz beha daitekeelarik.

LARRE BUZTANIKARA

(*Motacilla flava*)

DESKRIBAPENA: tamaina ertaineko txori honek pertikeraren antz handia du, baina lumajea horia du. Tonu horiz jantzitako bi buztankaria-mota dago, eta biak aurki daitezke Heuskal Herrian: larrebuztanikara eta buztanikara horia. Buztanikara horiak bizkar urdin-grisaska eta buztan luzeagoa aurkezten du, eta arraren paparra, ugalgaraian, beltza da; larrebuztanikarak bizkar berdeska eta papar zuriska agertzen du. Bestela, buztanikaren ohiko ezaugarri bereizgarriak aurkezten ditu: hegaldi uhindua, egunaren partetik handiena lurtean ematea eta buztana etengabe astintzea.

TAMAINA: Luzera. 16 cm. Pisua: 13-18 g.

BIOLOGIA: migratzailea da. Apirilean ugaltzen dira. Habia lurtean egiten du, uretatik gertu eta belarretan ezkatuta. 4-5 arrautza erruten dituzte, eta emeak 12-14 egunetan zehar inkubatu ondoren, txitoak jaioko dira. Habian beste 12 egun eman ondoren, honen inguruan 5 egun inguru emango dituzte, tarte horretan helduek elikatzen dituztelarik. Kumeak elikatzeke hegodun intsektuak (dipteroak eta kakalardoak). harripatzen dituzte.



ELIKADURA: intsektuz elikatzen dira, hauek buztana etengabe kulunkatzen duten bitartean bat-batean abiadura handituz edo geldituz harripatzen dituztelarik, bai urbazterretan eta erreketako harrien artean, bai kostaldean.

HABITATA: ingurune heze padura eta urasetutako eremutan.

TXEPETXA

(*Troglodytes troglodytes*)

DESKRIBAPENA: tamaina ñimi-ñoiko txoritxo honek arraseko hegaldi zuzen eta laburrak burutzen ditu, eta sastraka batetik bestera pasatzen denean, bere hegala laburrengatik eta goian eraman ohi duen buztanagatik ez balitz, sagutxo gorriskaren batekin nahas genezke. Eztei-jantziak hosto lehorren tonuak dauzka: bizkarrean kolore gorriskara eta sabelaldean kolore argia, gorputza marra ilunez josita dagoelarik. Buztana altxatuta eraman ohi du, eta bere txioa, sastraken edo zuhaisken artean datorren “prrrrr” antzeko soinua edo, adartxoren baten pausatzen denean, doinu eztea izan daitekeelarik. Ezkutaleku bezala erabiltzen dituen heskai edo sastraketarantz bideratutako arraseko hegaldi azkarrak burutzen ditu.

Ez da kobazuloekin harremanetan dagoen hegaztia, haren izen zientifikoa (*Troglodytes* = kobazalea) pentsaratzen digun bezala; izan ere, habia itxia eraikitzen du kumeak aurrera ateratzeko eta beste generokide batzuekin batera neguko gau hotzetan gordetzeko; horregatik esleitu zitzaion aipaturiko izen zientifikoa.

TAMAINA: luzera: 9-10 cm. Hego-luzera: 14-15 cm. Pisua: 10 g.

BIOLOGIA: arra poligamo da, eta



eme bakoitzarentzat habia bat eraikitzen du. Hain berezkoa duen habiak etxetxu-itxura du, bi zulo uzten dituelarik, bat aurrealdean eta bestea gibelean, antzeko irteera modura. Goroldioz, belarrez, hostoz... eginda dago, eta barrutik lumentz estalita dago. Emeak 5-10 arrautza erruten ditu, eta beste 15 egunetan zehar inkubatu ondoren; txitoak jaioko dira. Kumeek oraindik ere beste 17

egun eman beharko dituzte habian. Ar poligamoak txito-talde guztiak zaindu eta elikatu beharko ditu bata bestearen atzean, honek ehizaiharduera etengabea eskatzen duelarik.

Espezie geldikortzat daukagun arren, goi-baso eta sastrakadietan bizi diren txepetx batzuek ugaltze-eremuak uzten dituzte neguan, eta haran-hondoetara eta inguruko eremu epelagoetara joaten dira.

ELIKADURA: era guztietako ornogabe eta beldarrez elikatzen da.

HABITATA: oihanpean bizi ohi da, sastraka eta zuhaisken artean, zuhaiska-geruzan finkatzen delarik. Ezkutatzeko beharrezkoa duen sasitza daukan edozein habitatean aurki daiteke: otadiak, pinudiak, haltzadiak, hondartzak, hiriguneetako lorategiak, landa eta larreetako heskaiak edo ingurune hezeak.

Euskal Herriko hegazti ugarienetakoa bat delarik, 100.000 -150.000 bikote ugaltzaileko populazioa duela estimatu da.



TXANTXANGORRI (*Erithacus rubecola*)

DESKRIBAPENA: ezaugarriak bereizgarriena kopetan, saman eta bularren agertzen duen kolore laranja da. Bizkarra tonu oliba-arrez margotuta dago, eta sabelalde, berriz, zuriska da. Hegazti gazteen lumajean, tonu arre desberdinek bularreko kolore laranja ordezkatzan dute. Zilueta potxoloa du, buru handia eta gorputz zabala bereiz daitekeelarik. Adarretan edo bestelako esekitokietan kantatzen egoten da, "tsiktsak" errepikatua edo "tsuik" antzeko soinu desberdin ugari sortuz.

TAMAINA: luzera: 13-14 cm. Hego luzera: 22 cm. Pisua: 16-22 g.

BIOLOGIA: Euskal Herriko, neguko hazkundera agertzen duen populazio sedentarioa da.

Udazkeneko pasea irailetik azaroa arte gertatzen da, eta udaberrikoa otsailak edo apirilak aldera. Ugalgarian oso txori lurraldekoi eta oldarkorra da. Habia ia edonon eraiki dezake: hormetan, adarretan eta zuhaitz, zuhaizka edo gizaeraikuntzetako zuloetan. 5-7 arrautza erruten ditu, eta emeak 14 egunetan zehar inkubatuko ditu. Urtean bi errunaldi burutzen ditu. Penintsularen iparraldeko beste goi-baso batzuetan gertatzen den bezala, txantxangorri gehienek Euskal Herriako basoetatik alde egiten dute udazkenean, eta ez dira berriro azaltzen martxora arte. Negu-lurraldeen kokapena zein den ez bada-kigu ere, badirudi txantxangorri hauetako edo Mediterraneoaren inguruko lurralde epelagoetara jotzen dutela.

ELIKADURA: intsektujalea da, nahiz eta bestelako omogabeak ere harrapatu, eta neguan zehar haziak eta fruituak gehigarri modura jaten ditu. Gizakiengandik horren hurbil mugitzen denez, lur-zizareak eta larbak aitzurrak azelartu ahala harrapatzen ditu, eta zenbait baserritan, eguneroko mahaikide bihurtzen da.

HABITATA: sastrakadi eta oihanpe trinkoa duten basoetan aurkitzen da batez ere, bereziki, hariztietan, erkameztietan amezti helduetan eta intsinis pinuko adineko landaketetan. Baserrigiroko biztanleriarekin elkarbizitzen ikasi ondoren, badirudi orain hirigunean gauza bera gertatzen aro dela, belarra eta zuhaiskak dituzten parke ugarian topatzea arrunt samarra baita.



duetan eta intsinis pinuko adineko landaketetan. Baserrigiroko biztanleriarekin elkarbizitzen ikasi ondoren, badirudi orain hirigunean gauza bera gertatzen aro dela, belarra eta zuhaiskak dituzten parke ugarian topatzea arrunt samarra baita.

MENDI TUNTUNA (*Prunella modularis*)

DESKRIBAPENA: tutun Arruntaren antzekoa baina tamaina handiagoa eta kolore gehiagokoa. Nabarmenak dira saihets gorriztak eta eztauri zuria, orban beltz txikiak dituenak.

TAMAINA: luzera: 18 cm. Pisua: 23-35 gr.

BIOLOGIA: habia arrak eta emeak egiten dute zulo edo arrakala txikietan. Habia goroldioz, belarrez eta sust-raiz estalita dago eta ber-



tan emeak urtean bi errunaldi egiten ditu 4 edo 5an arrautzakoak.

ELIKADURA: bai intsektuz eta omogabe txikiz bai haziz elikatzen da. Hortaz, intsektu eta bikorjalea dugu.

HABITATA: goi-mendietako hegaztia da eta Euskal Herrian 960 m-ko altueratik gorako mendi-mazela arroka-tsuetan baino ez da aurkitzen. Haitzeko zona malkar-tsuetan eta goialdeetan bizi da.

TUNTUN ARRUNTA (*Prunella collaris*)

DESKRIBAPENA: txolarre emearen antz handia du, baina buruan eta bularrean aurkeztzen dituen tonu gris ilunei begiratura bereiz daiteke. Marra arrez zerrendatutako alboak eta bizkar gaztainakara aurkeztzen du, baina ezaugarri bereizgarrienak zuhaiska-geruzarako joera, moko intsektujale berezia eta buruko eta bularreko tonu gris ilunak dira.

TAMAINA: luzera: 14-15 cm. Pisua: 20-22 g.

BIOLOGIA: Euskal Herriako bikote habigileak sedentario modura jokatzan dute, udazkenean eta neguan, Europako erdialdetik eta iparraldetik datozen ale negutarren etorreraren ondorioz, populazioa handitu egiten bada ere. Neguak hotzak direnean, inguruetako mendietako aleak ere kostaldeko eremu epelagoetara hurbiltzen dira. Habigintza apirilaren hasieran ematen da. Bi helduek habia eraiki ondoren, emeak 4-5 arrautza erruten ditu, hurrengo 12-13 egunetan zehar berak inkubatuko dituelarik. Ondoren txitoak jaioko dira, eta oraindik beste 15 egun emango dituzte habian. Kukua (*Cuculus canorus*) espezie honen ume-parasitua da, tuntun arruntak erruten dituen orbanik gabeko arrautza urdinak imitatzen espezializatuz. Hori dela eta, udaberrian, kukua espezie honetako bikoteraren batengandik ihes egiten ikustea arrunta iza-



ten da.

ELIKADURA: intsektuz eta beste omogabez elikatzen da batez ere, udazkenean eta neguan elikaduran haziak eta baiak ere agertzen direlarik.

HABITATA: askorik nabarmen ez den espezie urguria da, eta batez ere heskai eta sastrakadietan ezartzen da, bai landa-zabaletan nahiz eremu irekietan, bai basoetan. Hezetasun altuko inguruneak nahiago ditu, horregatik, pinudi eta haltzadietako sastrakadietan, landazabaleko heskai eta sastraketan hezean aurkituko dugu.

URRETXINDORRA (*Luscinia megarhynchos*)

DESKRIBAPENA: urretxindorra txori liraina da, bizkaralde marroia, sabelalde arre argia edo zuriska eta isats arre-goriska dituen. Bakartia da eta ikusten oso zaila izaten da baina, aldiz bere kantu ospetsua entzuten erraza izaten da.

lumaje apal, jokaera zaputuz eta deigarriak ez diren ohiturez horniturik egon arren, mundu guztiak daki urretxindorrek kantu aparta duela.

Mila aldiz laudatuta eta miretua izan den kantu hau musikagileen eta olerkarien inspirazio-iturri izan da. Eta, egiazki, ez da gubxiagorako ere. Apirilko edo maiatzeko ilunabar batetan urretxindorren kantua entzun ahal izan duten guztiek, txunditurik geratu izan dira, barutikoitasunaren kominikazio landu honen aurrean.

Urretxindorrek, zein beste edozein hegaztik, ez du gure atseginerako, ez eta udaberria ozen eta polit bihurtzeko asmoz kantatzen, baizik eta, lurraldeak jaberik baduela adierazteko eta honela lehiakideak urruntzeko. Eta, bide batez, eme bat erakari nahiean kantatzen du berarekin batera, sasi sakon eta babesgari baten azpiko lurtean bat edo bi txitaldi aurrera atera ahal izateko. Sastraka eta ibai-bazterretan bizi den udako hegaztia da, eta nagusiki, orbel artean aurkitzen dituen intsektuz elikatzen da.

TAMAINA: luzera: 16 cm. Pisua: 14-18 g.



BIOLOGIA: habia sasi eta zuhaiska artean egiten du. Migratzailea da.

ELIKADURA: intsektuak eta omogabeak jaten ditu.

HABITATA: Euskal Herrian, eskualde bero eta lehorretan soilik da arrunta.

ERREKATXINDORRA

(*Cettia cetti*)

DESKRIBAPENA: zuhaiska-geruzan ezkutatuta bizi den txori txiki honen kantua bere kokapenerako ezinbestekoa zaigu. Bat batean sortzen duen nota altuen eztandak, "tsi, tsip, tsipi, tsipi, tsipi, tsiip" antzeko soinua, tamaina handiagoko hegaztiari dagokiolak pentsa zitekeen. Zuhaisken artean dagoelarik kantatu ohi du. Gorputz osoa arrea da, gorriskagoa bizkaraldetik eta grisaskagoa azpitik. Buztan eta hego labur eta borobilduak, eta zilueta potxoloa agertzen du, hurbileko sastraketa-rantz bideratutako hegaldi labur eta zuzenak burutzen dituelarik.

Arrak, emeak baino nabariki txikiagoak izaten dira, eta hauek baino %30eko pisu handiagoa izaten dute.

TAMAINA: luzera: 14 cm. Pisua: 12-18 g.

BIOLOGIA: denboaren parte handiena zuhaiska-geruzan geldi ematen du, bere txinta bereizgarria kantatzen. Apirilak aldera, udaberria heltzerakoan, soinu hau gero eta setatiago bilakatzen da. Habia lurretik hurbil eraikitzen du, landarediari lotuta.

Emeak 4 arrautza erruten ditu eta 13 eguneko inkubazioa burutu ondoren, arrarekin batera, txitoak beste 15 egunetan zehar elikatuko ditu. Momentu horretan txitoek habiatik alde



egingo dute, hurrengo bi astetan, inguruetatik hegan egiten duten bitartean, gurasoengandik elikagaiak jasoko dituztelarik. Sedentario modura jokatzen du, ia migrazioz edo transumantzia-mugimendurik burutu gabe.

ELIKADURA: intsektiboroa da, baina neguan zehar, ornogabe gutxi dagoenean, zenbait baita eta hazi jaten ditu.

HABITATA: erreka eta ibaietako urbazterretako sasi eta zuhaisketan bizi da, baita ingurune hezeetako haltzadi eta sahasietan ere.

Landazabaleko bazterreko heskaiak, eta pinudi eta bestelako basoetako sasiak kolonizatzeko saioak egiten ditu, baina hotz-boladarik bada, lehengo habitatetara itzuli behar da berriro ere. Euskal Herriari dagokionez, batez ere kostaldean eta haran-hondoetan zehar banaturik dago.

BUZTANZURI HORIA

(*Oenanthe hispanica*)

DESKRIBAPENA: buztanzuri horiak ipurtxuntxurra zuria eta hegoak, isatsa, aurpegia eta lepoa beltzak ditu. Gainerakoa zuriska du eta hankak eta mokoa beltzaak dira.

TAMAINA: luzera: 14 cm.

BIOLOGIA: habia lurrean egiten du.

ELIKADURA: intsektuak eta ornogabeak jaten ditu

HABITATA: landaredi gutxiko leku harritsuetan bizi da eta migratzaile da.

Euskal Herrian, klima lehor eta beroena dagoen lekuetan bizi da. 500 bikote baino gutxiagoko populazioa estimatzen da Euskal Herrian.



BUZTANGORRI ILUNA

(*Phoenicurus ochruros*)

DESKRIBAPENA: izena adreilu-gorri koloreko buztan deigarritik dator. Isatsa alde batera utzita, arrek eta emeek lumaje desberdina agertzen dute. Arraren kolorea beltzesa da, ilunagoa gorputzean, buztaneko kolore gorriak eta hegan egiten duenean agerian geratzen diren hegoetako orban zuriek kontraste handiagoa eskaintzen dutelarik.

Emea eta gazteak hitsagoak dira, buztanean salbu, kolore arre-grisaska agertzen baitute.

TAMAINA: luzera: 14 cm. Hego-luzera: 23 cm. Pisua: 14-19g.

BIOLOGIA: txori artega dugu hau, eta urduri dagoenean buztana eten-gabeki astintzen hasten da. Horretako zulo eta hutsuneetan egiten du habia: itsaslabarretan, gizonak egindako egituretan, edo, horrelakorik aurkitzen ez badu, tutu eta teilategaletan. Emeak habia eraikiko du, honetarako goroldia, belar lehorrak, adartxoak eta landare-zuntzak erabiliz, eta 4-6 arrautza errun ondoren 15 egunetan zehar berotuko ditu. Txitoek beste bi aste emango dituzte habian. Ugalgarai apirilaren bukaeran hasten da, eta urtero bi edo baita hiru txitaldi ere egon daitezke.



Sedentario modura jokatzen du, klima hotzagoetako ale bakan batzuk gure kostaldean negutzen badute ere.

ELIKADURA: intsektuz eta bestelako ornogabez elikatzen da, neguan fruitu eta haziak gehigarri modura jaten dituelarik.

HABITATA: gehienetan zuhaitzitik gabeko eremu arroksuetan bizi da, baina giza eraikinetan ere aurki daiteke, eta askotan herri eta hirien gunean bertan egiten ditu habiak.

Kostaldean itsaslabar arroksuetan bizi da, harrobiak, etxetzar eta baserriak, eleizak eta hiriguneko etxebizitza bakan batzuk ere erabil ditzakeelarik.

PITXARTXAR BURUBELTZA

(*Saxicola torquata*)

DESKRIBAPENA: txori arrunta hau toki garaietan pausatu ohi da, adarretan, zuhaisketan, hesietan, makiletan... Zilueta potxoloan badirudi proportzioak ez direla ondo gorde, oso buru handia eta buztan luzea baitu. Arrak oso lumaje deigarria du: burua eta bizkarra beltzak dira, eta bularra, berriz, gaztainakara-gorrika, saman, ipurtxuntxurrean eta hegoetako zerrendetan agertzen duen kolore zuria kontraste ederra sortzen duelarik. Emea antzekoa bada ere, hitsagoa da: kolore beltza arre bihurtzen da eta ez da ipurtxuntxur zuririk agertzen.

TAMAINA: luzera: 12-13 cm. Hego-luzera: 20 cm. Pisua: 14-17 g.

BIOLOGIA: bikoteen batasuna urte osoan zehar mantentzen da, eta martxoak edo apirilak aldera ugaltzen da. Habia lurrean egiten du, sastraken edo harrien alboan kokatutako sakonuneetan. Soilik emea arituko da eraikitza lanetan, eta ondoren 14 egunetan zehar arrautzak berotuko ditu. Beste bi aste pasatu direnean, txitoak habiatik alde egiteko prest egongo dira. Urtero, urriaren erdialdetik azaroaren hasierara arte, ale-kopuruaren hazkundera nabaritzen da, baina egunak pasatu ahala hazkundera hau desagertuz badoa ere, udako populazioa ugariagoa mantentzen dela ikusi da.

ELIKADURA: harrapakinak talaietatik zelatatzen ditu, eta gero hauen gainera amiltzen da, beraien atzetik hegan egin ondoren



lurrean harrapatuko dituelarik. Intsektuz eta bestelako ornogabez elikatzen da

BUZTANGORRI ARGIA

(*Phoenicurus phoenicurus*)

DESKRIBAPENA: espezie honek Heuskal Herrian aurkitzen diren hegaztiarik deigarrienetakoak dira. Aurpegia, beltza izaten du, bekokia zuria, kapirotea eta gainaldeak grisak, eta azpialdeak eta buztana gorriak. Emeak buztangorri ilunarenen antzeko samarrak dira, baina askoz ere kolore argiagoa izaten dute.

Bere itxura eta ohiturek buztangorri iluna (*Phoenicurus ochruros*) gogora erazten digute, izan ere, habitat ezberdinetan bizi da, baso hostogalkorretako hegaztia bait da. Habia batez ere, zuhaitz-zulogunetan egiten du, baina ez ditu horregatik harkaitz eta etxetako barrunbe eta zirrikituak arbuiztzen.

TAMAINA: luzera: 11,5 cm. Pisua: 12-19,5 g.

BIOLOGIA: emeak habia eraikiko du, honetarako goroldia, belar lehorrak, adartxoak eta landare-zuntzak erabiliz, eta 4-5 arrautza errun ondoren 14-15 egunetan zehar berotuko ditu. Txitoek beste bi aste emango dituzte habian. Ugalgaraia apirilaren bukaeran hasten da, eta urtero bi edo baita hiru txitaldi ere egon daitezke.. Hegazti hauek apirilaren erditik aurrera ikus daitezke Euskal Herrian, orduan itzultzen baitira



Afrikako negu-lurraldeetatik. Abuztuaren bukaeran desagertzen dira, hegazti gehienek migratziomugimenduei ekiten dietenean.

ELIKADURA: buztangorri iluna baino lagunartekoagoa da, eta bi hegaztiok nagusiki dieta berdina daukate, txindurritz, matxinsaltoz, tximeletaz, kolepteroz eta beste zenbait ornogabe txikiz osatua.

HABITATA: baso-hegaztia da hertsiki eta zulo ugari dituzten baso helduetan egiten ditu habiak.

Barudi hegazti eder hau azken urte hauetan kopuru-beherkada aparta ari dela jasaten, pestiziden eraginaren ondorioz, seguraski.

Euskal Herrian oso uria da eta dauden ale bakanak sakabanaturik daude artadi zaharretan eta baso hostoerorkorretan zehar.

Espezie hau arriskuan dagoelarik, lurralde honetan duen populazioa 150-200 bikotetik beherakoa bide da. Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendak espezie Kalteberatzak hartu du, eta zuhaitz helduen mozketa bide da gure lurraldean buztangorri hauek pairatzen duten mehatxu nagusia.

BUZTANZURI BELTZA

(*Oenanthe leucura*)

DESKRIBAPENA: espezie honek neurri txikikoa da, 19 cm-ko luzerara heltzen da. Dimorfismo sexuala espezie honetan ez da oso nabarmena. Arrak beltz-kedar koloretakoa da, erreflexu nabar eta tindu batuekin hegoetan. Ipurbuntxur eta estalki lumak zuriak dira. Isatsa erdian beltza eta alboetan zuria, muturreko marra beltzekin. Emeak arre-beltz koloretakoak erreflexu barik, beheko aldeak nabar azpildutak.

TAMAINA: luzera: 19 cm. Pisua: 38-42 g.

BIOLOGIA: bakarti ohiturakoa da, baina bikoteak sortzen du ugalketa epea denean. Harrietan sortzen diren zulo eta barrunbeetan egiten ditu habiak. Hauek material begetalekin egiten ditu. Habia baretik tapizatuta dago eta ekartzen dituen harriekin inguratzen du. Jarrera honek oso bitxia da. Urtean bi errunaldi ematen dira, 4-6 arrautzekoa bakoitza.

Oso populazio urria da eta oraindik ez da nabaritu habiak egiteko



saiaketarik, bere presentzia oso egonkorra izan arren. Penintsula Iberiarreko populazioa gutxitzen ari da.

Espeziearentzat baldintza ekologiko aproposak ez egotea, gure lurraldean bere presentzia murrizten du. Penintsulako beste lurraldeetan bere keinadak, ingurunean egiten ari diren aldaketengatik datoz.

Kontserbaziorako neurriak, okupatzen duen lurraldeen kontserbazio on bat lortzera helbideratu behar dira.

ELIKADURA: basikoki artropodoak eta moluskuz elikatzen da baina batzuetan narrasti txikiak edo fruituak ere jaten du.

HABITATA: lautada eta ezpanda harritsuetan kokatzen da, lurzoru biluziko gunerdiaridoetan edo batzuetan barrunbe aproposak dituzten eraikinetan. Bere hegaldia laburra da eta sarritan isatsa mugitzen du.

Espezie honen banaketa Penintsula Iberiarrean eta Afrikako iparmendebaldearaino mugatzen da. Gure lurraldean mediterraneoaldean lurralde zehatzetan agertzen da eta noizbehinka kostaldean.

HARKAITZ-ZOZO GORRIA

(*Monticola saxatilis*)

DESKRIBAPENA: hegazti hau, bere izenak dioen moduan, harkaiztarra dugu, mila metrotatik gorako mailatan egoten delarik, lumaje ederra edukitzeagatik eta arorroa izateagatik presio zinegetiko handia jasan ondoren, hara izan bait da zokoratua. Harkaitz altuetan eta inguruan belardi eta sastrakak dituzten eta harriak lurrazaleratzen diren lekutan bizi den hegazti urria eta izua da. Leku horietan, bere harrapakin diren intsektu eta harrak harrapatzen ditu.

Arrak kolore askodun lumadi ikusgarria du: ipurbuntxur zuria, ezta, buru eta bizkar urdin harbelkarra, eta laranja koloreko azpialdeak. Hala ere, ez da erraza, ikusten, jokaera iheskor eta bakartia baitu. Sarritan errazagoa izaten da hegan ari den bitartean edo harkaitz baten puntatik botatzen duen xirula-noten antzeko txorrotzioaz jobetzea. Sahara zeharkatzen duen migratzailea da eta Penintsularen iparraldeko mendietara, apirilaren erdian heltzen da. Habia, arroka arteko zulo batean egiten du, gehienetan zuhaixka gutxiko mendi-mazela larredidun arroka-



tsuetan. Euskal herriann 600 m-tik gorako altueretan dauden harkaitzetan egiten ditu habiak, baina uren banalerroko mendietako (Gorbeia, Salvada, Aralar) ugaltze-lurraldeak 900 metroko altueratik gora daude. Gure artean umatze-garaian bakarrik egoten den uda-hegaztia da.

BUZTANGORRI ARRUNTA

(*Oenanthe oenanthe*)

DESKRIBAPENA: emeek eta arren lumajearen arteko desberdintasun handietan isladatzen den dimorfismo sexual argia dago. Arraren bizkarra gris-irdinska da, eta hegoak, berriz, beltzak dira. Buru grisaskan mokoaren oinetik ia garondoraino eta samaraino zabaltzen den karatula-itxurako orban beltza agertzen du. Emea ez da horren ikusgarria: kolore arre-grisaska agertzen du, eta karatula-itxurako orbana ez da ia markatzen. Ezaugarriak deigarrienak ipurtuntxur zuri-zuria eta buztanaren bukaeran agertzen duen zerrenda beltz zabala dira, banda honek, erdiko lumetatik gorputzerantz zabalduz, "T" alderantzikatuaren forma hartzen duelarik.

TAMAINA: luzera: 14-15 cm. Hego-luzera: 24 cm. Pisua: 14-30 g.

BIOLOGIA: Afrika tropikalera doa negua pasatzera, eta apirilean ugaltokira itzultzen da berriro ere. Habia lurrean egiten du, harrien azpiko hutsune eta zuloetan edo harrien artean. 14 egunetan zehar 5-6 arrautza inkubatuko ditu, eta txitoek beste bi aste emango dituzte habian.

Jokabide urduria agertzen du, alde batetik bestera korrika etengabe. Harri-multzoko edo bestelako muinoetatik "tek, tek" antzeko soinua sortu ondoren, berehala, arraseko hegaldian, inguruko beste talaiaren baterantz abiatzen da.

ELIKADURA: lurrean, atzera eta aurrera korrika eginez harrapa-



tutako ornogabeak jaten ditu, intsektuak, lurzizareak, moluskuak...

HABITATA: eremu zabaletan bizi da eta ugaltoki modura harrobi eta hariz.

Espezie hau ohikoa izaten da eremu irekietan, baina oso banaketa aldakorra du euskal geografian zehar. Ugaria izaten da otalurretan eta mediterranearen isurialdeko zereal-soroen eta mahastien artean tartekaturik dauden landu

gabeko lurretan; atlantiar eskualdean 700 metroko altueratik gora bakarrik ugaltzen da, eta beraz, nahiko hegazti urria da.

HARKAITZ-ZOZO URDINA

(*Monticola solitarius*)

DESKRIBAPENA: Izaera mesfidati eta iheskorra erakusten duenez, oso hegazti ezezaguna da, nahiz eta lumaje eder eta deigarria izan. Dimorfismo sexual nabarmena aurkezten du. Arren gorputz osoak kolore urdin ilun bizia agertzen du, hego eta buztan ilunagoekin, eta hanka beltzetan ere tonu urdinak bereiz daitezke. Emea, ordea, nabardura urdinak agertzen baditu ere, orban argiz pikardatutako kolore arre-grisaskaz jantzita dago.

TAMAINA: luzera: 20 cm. Hego-luzera: 33-37 cm.

BIOLOGIA: hegazti honek tamaina handi samarra eta lumaje deigarria agertzen badu ere, bere izakera iheskor eta mesfidatia dela eta gutxitan ikusi ahal izango dugu. Sedentarioa da eta urte osoan zehar itsaslabar eta arroketan zehar korrika, saltoka, arraseko hegaldian eta, arriskuren bat somatzekotan, harrien atzean ezkutatzen beha daiteke. Zulo naturaletan, arrakaleetan eta erlaitzetan belarrez, sustraitxoak eta goroldioz egindako habia eraikitzen du.

Espezie hau ohikoa izaten da ingurune arroksuetan, eta



Euskal Herrian itsas labarretan eta Arabako hegoaldeko mendietan banaturik dago nagusiki. Gutxitan aurkitzen da uren banaleroko mendietan, baina berriki zenbait bikote ugaltzaile azaldu dira bertan.

HABITATA: harkaizti eta horma bertikaletan, eremu arroksuetan eta penintsula barneko horma eguzkitsuetan bizi da.

PITXARTXAR NABAR

(*Saxicola rubetra*)

DESKRIBAPENA: espezie honek neurri txikikoa da, 13cm-ko luzerara heltzen da. Dimorfismo sexuala egoten da. Arra, goikaldea arre-beltza koloretakoa dauka eta lumetan gaztain koloretako azpildurak dauka. Buruan bekain luze eta zuri bat dauka eta begi behean marra beltzak. Hegoak, gikaldean arre ilunak dira eta barnealdeko estalkiak mota zuri batekin. Isatsa arre koloretakoa da eta oinarria zuria. Behekaldeak zuri-krema koloretakoak dir, bularra eta lepoa gorrizkoak dira eta ezta-riaren alboetan marra zuri bat



dituen artropodoak, moluskuak eta zizareak jaten ditu. Euskal Herriko populazio ugaltzailearen kopurua 500 kidera heltzen dela estimatzen da. Espezie honek atzerakada andia jasan izan du, zakabanatzeko zonaldeak eta populaziei buruz hitz egiten ba dugu; adibidez, hirurogeietan Gipuzkoaldean ugariak ziren. Atzerakada honek Penintzula Iberiarrean ere ematen den arren, Europako populazioak oreka mantentzen dute atzerakada txikiekin.

Bere populazioek mugatzen dituzten faktoreak erdigunean egindako aldaketan bilatu behar dira, hau da, campña-tan eta landetan egindako baso-berritze foreztalak, praktika intentsibozko nekazaritza edo pastizaleetan kokatzen diren zuhaisken dezagerpena. Kontserbaziorako neurria okupatzen dituzten ingurugiroak mantentzera bideratu beharko lirateke, habitaten kondizioak zaintzen edo hobetzen.

dauka. Emea, bekain horitsua dauka eta gainetik argitsuagoa da, hegoak zuri gutxiagoak dira eta ezta-riko marrak arre koloretakoak dira. mokoa eta isatsa, beltzak dira.

TAMAINA: luzera: 13 cm.

HABITATA: zonalde irekietan bizitzen da, ia zuhaitzik ez dauden belardi eta alhagunetan eta ez du 1000 metroko altitueda gaintitzen. Denbora luzea ematen du atsedean hartzen bere posaderoan, isatsa mugitzen. Bere hegaldia zuzena da eta lurrazaletik hurbil.

Paleartikotik banatuta dago. Gure lurraldean Entzia, Aralar eta Salbadako mendiko altzoetan agertzen da, hala ere Arabar lautadako berroetako ertzetan agertzen da. Udakoa eta transahariar migratzailea da.

BIOLOGIA: aktibitate krepuskularreko animali bakarti honek, udazkena eltzean kidetasuneko taldeak osatzen ditu. Begetazio artean egiten du habia material begetadunekin, kopa itzurazkoa eta barnetik tapizatuta; urtean bat edo bi errunaldi izaten ditu bost edo sei arraultzakoak. Basikoki begetazio artean arrapatzen dituen edo lurzoruan topatzen



DURDULA (*Turdus pilaris*)

DESKRIBAPENA: garraztarroaren eta birigarro arruntaren tarteko tamaina du. Ezaugarriak bereizgarriena buruko eta ipur-txuntxurreko kolore gris iluna da. Bestalde, bizkar gaztainakara eta buztan beltzera erakusten du. Bular horigorrika orban ilunez zerrendatuta agertzen da, eta hegoen azpialdea zuria da. Hegan egiteko modua birigarro-mota desberdinak bereizteko datu garrantzitsua da, garraztarroak ibilbide uhindua daraman bitartean, durdulak hegazti zuzen eta zehatzagoa erakusten baitu.

TAMAINA: luzera: 26.

BIOLOGIA: nahiz eta paseko espeziea izan, oso ale gubxi heltzen da penintsulara, gehienak iparraldean gertatzen baitira, Nafarroa eta Oporto lotzen dituen irudizko marrik gora. Ekaitz gogorretan eta, batez ere, hotz-boladetan, ale askok migraziogarritik kanpoko ibilaldiak burutzen dituzte, Kantauri aldeko kostaldeko landazabala betetzeko adina txori etortzen delarik. Udazkeneko pasea azaroan gertatu ohi da, baina, intentsitate txikiagoan bada ere, otsailera arte jarraitzen du. Udakoa martxoan gertatzen da.

ELIKADURA: lur-zizarez, barraskiloiz eta intsektuz elikatzen da batez ere, baina udazkenean eta neguan naturak eskainitako



fruituak, baiak eta haziak probetxatzen ditu. Lur-zizareak harrapatzeko belar motzeko larre eta zelaletan pausatu ohi da, jarrera mesfidati eta tentean itxaron ondoren, lur azpitik datozen hotsak entzuterakoan trebetasun handiz azaleratzen dituelarik.

HABITATA: hegazti migratzaile hau Euskal Herrian pausatzen da. Gelditzen denean, larre eta

zelaien ondoko haltzadi eta baso mistoetan atsedean hartzen du. Hotz-boladetan espezie honetako ale ugari etortzen da, eta zuzenean landazabalera pausatzeraz doaz.

BIRIGARRO TXIKIA (*Turdus iliacus*)

DESKRIBAPENA: birigarro txikia genero honetako europar espezierik txikiena da. Tamaina alde batera utzita, gorputzaren alboetan eta hegoen azpialdean agertzen duen kolore gorria, eta begiaren gaineko bekain zuria, txori hau bereizten duten ezaugarri nabariak dira. Beste zenbait espezie ez bezala, neguko urtesasoian saldotan ibili ohi da. Hegan sortzen duen

“Tsiitiiip” antzeko apeu laburra, udazkenean sarriagotan entzun daiteke, garai horretan birigarro txiki ugari gure udalerriaren gainean hegan egiten baitu.

TAMAINA: luzera: 21 cm. Hego-luzera: 34 cm. Pisua: 60 g.

BIOLOGIA: mugimendu handiena eguneko lehen orduetan eta gauean, argirik gabe ikustezinak badira ere apeu bereizgarria entzun dezakegunean, gertatzen da. Normalean, azaroak aldera



heltzen da, birigarro arrunta baino zertxobait beranduago. Negu-tokian finkatzen denean janlekuen eta etzalekuen arteko ibilbide zehatzak ezarri ohi ditu. Janlekuak fruitu eta baia ugariz hornitutako toki basotuak dira, bertako landaredia elorrio zuriek, legeltxorrek, huntzek, endalaharrek... osotzen dutelarik. Eskakizun horiek betetzen duen eremurik aurkitzen ez badu, larre, landa eta soroetan bazkatzeraz edo moluskuak eta lur-zizareak harrapatzeraz

abiatzen da. Hotz-boladek txori hauengan eragin handia dute, eta horrelakoetan kostaldeko larreetan babesa eta janaria bilatzen dute, durdulekin, hegaberak, txirriekin eta bestelako txoriekin batera.

ELIKADURA: fruituak, baiak, moluskuak eta lur-zizareak jaten ditu.

HABITATA: Europako iparraldekoizeidi eta mendiko basoetan.

BIRIGARRO ARRUNTA (*Turdus philomelos*)

DESKRIBAPENA: tamari dagokionez zozoaren antzekoa bada ere, kolore gorri-hori eta arrez margotutako birigarro arruntak, ez du horren lumaje deigarriak erakusten. Orban arre-beltzeskez pikardatutako bular arre argia du, eta bizkarrean kolore arre homogeneoa nagusitzen da.

TAMAINA: luzera: 23 cm. Hego-luzera: 35 cm. Pisua: 70-90 g.

BIOLOGIA: urriaren erdialdean lehenengo ale mmigratzaileak beha daitezke, eta hauetako batzuek gure udalerria negu-toki modura aukeratzen duten bitartean, beste batzuek, ordea, bideari ekiten diote berriro ere.

Espezie honen migrazioa ez da birigarro txikiarena bezain ikusgarria, orokorrean gauez eta talde txikitik edo banaka hegan egiten baitute. Otsailean, araldiari ekiten diote, eten laburrez banaturiko ahalaldi labur eta aldakorrek errepikatzean datzan kantu ozena eginez.

Martxoan altuera txikiko zuhaitz eta zuhaisketan ugaltzen da. 13-15 egunetan zehar inkubatuko dituen 3-5 arrautza errun ohi ditu, eta eklosiaren ondoren, txitoek beste 15 egun emango dituzte habian, bertatik oraindik erabat garatuta egon gabe eta hegaldi traketsetan irteten direlarik. Normalean, urtero bi edo hiru txitaldi egoten dira.

Irailaren erditik eta batez ere urrian eta azaroan, europar populazio migratzaileen udazkeneko pasea gertatzen da; horietako gehienak, Eskandinavia, Alemania, Holanda eta Britainiar Uharteetatik etortzen dira. Genero bereko beste espezie batzuekin lagunduta etortzen dira, bereziki, Birigarro Txikiarekin eta Durdularekin, eta bai aipaturiko Garraztarroaren iparreko populazioekin ere.



ELIKADURA: elikadura intsektu, lur-zizare eta larbetan oinarritzen da. Barraskiloak txori hauen gurarietako bat dira, mokoaren bidez heldu ondoren harrien kontra botaz apurtzen dituztelarik.

Sarritan, harri baten inguruan metatutako barraskiloen oskol-multzoa ikus daiteke, harri bera behin eta berriro erabiltzen baitute.

HABITATA: oso habitat desberdinetan topatuko dugu. Landazabalaren paisaia nahastua nahiago du, bertan, elikatze behar dituen landak eta

soroak, eta ezkutatze eta ugaltze proposak diren heskai eta zuhaitziak eskura baititu. Birigarro arruntak haltzadiarekiko harreman estua agertzen du, eta beraz, baso hauetan oso ugaria da. Bestalde, haltzadi hauek larreen artean egon ohi direnez, ugaltze eta negutze oso leku proposak dira.



ZOZO ARRUNTA (*Turdus merula*)



DESKRIBAPENA: Euskal Herriko lorategi eta parkeetan oso arrunta da. Arra erabat beltza da, mokoak eta begiro eraztunak agertzen duen kolore hori eraztunak agertzen duen kolore hori edo laranja bizia alde batera utzita. Emea, berriz, marroi iluna da, eta mokoaren kolore hori bizia arre bilakatzen da, begiko eraztuna ere deagertzen delarik. Heldu bien buztana luze samarra da. Gazteek emearen antz handiagoa dute, kolore gorriskagoa eta bular jaspeztatuagoa agertzen dutelarik. Belarrean, zuhaisken edo sasien ondoan, pausatu ohi dira, arriskuen bat somatzekotan zuzenean landaredirantz sortu ohi duen txinta aldakorra eta bereizgarria gauean ere entzun daiteke. Ezustean harrapatzen badugu “tsua, tsua”, tsua, tsua, tsa tsa...” bezalako soinua sortuz arin aireratzten da.

TAMAINA: luzera: 24 cm. Hego luzera: 38 cm. Pisua: 110-



140 g.

BIOLOGIA: urtarilaren erdialdetik aurrera zozoaren lurralde-kantu ezia entzun daiteke. Otsailaren bukaeran edo Martxoan habia egiteko lanetan hasten da, honetarako adartxoak, belar lehorrak eta goroldioak erabiltzen dituelarik. Habia zuhaitz eta zuhaisketan egiten du, eta barnealdea luez, hostoz eta ilez estalita egoten da. Emeak 3-4 arrautza errungo ditu, eta 12-15 egunetan zehar inkubatuko ditu.

Txitoek beste 15 egun emango dituzte habian eta bertatik irteten direnean, arrak beste bi astetan zehar elikatuko ditu, emea hurrengo errunaldiarekin lanpetuta baitabil dagoeneko. Neguan zehar Europako zozo ugari etortzen da Kantauri aldera eguraldi bortitzetik alde egiten nahian. Udazkeneko migrazioa urrian hasten da, eta udaberrikoa otsailean eta martxoan.

ELIKADURA: lur-zizareak gogoko ditu, baina barraskilo eta intsektuak ere jaten ditu. Udazkenean eta neguan belarjale bihurtzen da, mazustak, pikuak, sagarrak eta bestelako baiak jaten dituelarik.

HABITATA: berezko habitata zelaien bazterretan, ibaietan eta erreketan zegoen, bertako urbazterreko basoetan eta zuhaiska-geruzan. Gaur egun, ordea, giza inguruneetako lorategi eta parkeetara modu bikainean moldatu da, eta arrunta kontsidera dezakegu.



GARRAZTARROA (*Turdus viscivorus*)

DESKRIBAPENA: bere generoko hegaztirik handiena. Erraz bereizten da bigarro arruntetik, gainaldean kolore grisaxkagatik eta hegoen barnealdeko zuria-gatik.

TAMAINA: luzera: 27 cm. Pisua: 110-140 g.

BIOLOGIA: hegazti goiztiarrenetakoa da araldian sartzeko. Abenduan entzun daiteke jadanik arrak zuhaitz baten adar irtenetik ateratzen duen xirula antzeko kantua Euskal Herriko pagadi eta hariztietan. Zenbait errute otsailaren bukaeran gertatzen dira, eta beraz, apirilaren hasierarako zenbait kumek utzia bide dute habia. Sasoi honetan batez ere intsektuek elikatzen bada ere, gainerakoetan ia fruituez bakarrik



elikatzen da: mihura, elorria, gorostia...

Bertako garraztarroak geldikorrek direla dirudi baina goieremuetan ugaltzen direnek, mugimendu laburrak egiten dituzte, eta neguan haran-hondoetako eremu irekietara jaisten dira. Bestetik, hegazti-talde handiak ikus daitezke bai udaberriko migrazioan, (Otsaila/martxoa), bai udazkenekoan (iraila/urria), ale hauek Iberiar Penintsulatik kanpoak bide dira, eta ziurrenik Eskandinaviatik eta Erdi Europatik etortzen dira.

ELIKADURA: gainerakoetan ia fruituez bakarrik elikatzen da.

HABITATA: ohiko baso-espeziea da, eta gogoko ditu argiuneak eta baso-ertzak; ugariagoa izaten da goieremuetan.

ZOZO PAPAZURIA (*Turdus torquatus*)

DESKRIBAPENA: antza handia du Zozo Arruntarekiko, baina bularra zeharkatzen dion marra zuri bereizgarria azaltzen du, emearen kasuan kolore motelagoa duena.

TAMAINA: luzera: 24 cm. Pisua: 130 g.

BIOLOGIA: gure latitudeetan urritik maiatzaren hasiera arte ikus daiteke, goi-larredien ondoan kokaturiko malda handiko harkaitzetan. Badirudi Kantauriar Mendilerroko edo Pirinioetako ugaltze-lurraldeetatik datozen hegazti transhumanteak direla, edota Britaniar Uhartetetatik datozen Iberiar Penintsulatik kanpoko aleak. Euskal Herrian egin den espezie honen kumaldiari buruzko aipu bakarra izan da Gorbeian 1982an ikusi ziren espezie honetako gazte hegadunena. Hortaz, baliteke noizik behinka papazuria parkean ugaltzea, baina azken urteetan ez da horrelakorik detektatu. Martxoan altuera txikiko zuhaitz eta zuhaisketan ugaltzen da. 14-15 egunetan zehar inkubatuko dituen 4-5 arrautza errun ohi ditu, eta eklosiaren ondoren, txitoek beste 15 egun emanango dituzte habian, bertatik oraindik erabat garatuta egon gabe eta hegaldi traketsean irteten direlarik. Normalean, urtero bi edo hiru txitaldi egoten dira.



ELIKADURA: elikadura intsektu, lur-zizare eta larbetan oinarritzen da. Barraskiloak txori hauen gurarietako bat dira, mokoaren bidez heldu ondoren harien kontra botaz apurtzen dituztelarik.

HABITATA: goi-larredien ondoan kokaturiko malda handiko harkaitzetan bizi da.

BENARRIZ GORRIZTA

(*Locustella luscinioides*)

DESKRIBAPENA: bizkaraldean kolore arre uniforme du bereizgarri; burua apur bat ilunxeagoa du. Bekain motz bat eta kokots zuria ditu. Arre-koloreak dauzka hegoak. Isats zabal eta zerrendatua du. Beheko aldeak argiak ditu; saiheksaldeak eta paparraldea, tindu ilunxeagokoak. Arre-olibak dauzka mokoa eta hankak.

TAMAINA: luzera: 14 cm.

BIOLOGIA: jarduera handiko hegaztia da, harat-honat etengabe dabil beti eremu zingiratsuetako landaredi artean. Lezka artean egiten du habia; lezka-zurtoinetan oinarritzen du habia, uretatik altuera gutxira. Katilu-eitea ematen dio habiari; landareez baliatzen da habia egiteko



eta barrualdea tapizatu egin ohi dio. Urtean errunaldi bakarra dagokio; lauzpabost arrautza erruten ditu orduan. Benarriz gorritzaren populazioak mehatxu larri baten pean bizi dira: hauskortasun-arrisku latza pairatzen dute, giza-jardueren euren habitatean eragindako aldaketa eta kalte sarriak tarteko.

ELIKADURA: batik bat intsektuez elikatzen da.

HABITATA: habitat oso zehatzean bizi ohi da eskuarki: eremu hezeetako lezkadietan, giza-jardueretatik urrun kokaturikoetan bereziki. Migrazio-garaian, zuhaixken eremuetan ere ageri da, baita uretatik aldentuta daudenetan ere.

Banaketa-eremu zabaleko espeziea da Europan. Euskal Autonomia Erkidegoan, baina, kostaldeko bi herritan bakarrik ageri da. Hegazti migratzaile udatiarra da.



BENARRIZ ARRUNTA

(*Acrocephalus schoenobaenus*)

DESKRIBAPENA: bizkaralde arre-oliba du bereizgarri, kolore ilunez ildaskaturikoa. Arre-ilunak ditu isatsa eta hegoak; beheko aldeak zurixkak ditu, baina paparraldea gorritzagoa ageri du. Hankak gris-argiak ditu.

TAMAINA: luzera: 14 cm.

BIOLOGIA: sastrakadi, belar garai eta heskaietan egiten du habia, uretatik hurbil nahiz urrun daudenetan. Lurzoru gainean eraikitzen du habia, katilu-erakoa. Urtean errunaldi bakarra dagokio; bospasei arrautza erruten ditu orduan. Benarriz arruntaren populazioen atzerakada, berriz, zingiradietako habitateetan jasandako aldaketen eta narriaduraren ondorio da; ugaltzean pairatzen dute, bereziki, horien erasana.

ELIKADURA: intsektuez elikatzen da gehienbat; alabaina, ez die muzinik egiten beste zenbait artro-



podo txikiri ere.

HABITATA: habitat oso berezia du bizilekutzat: alegia, eremu hezeak inguratzen dituzten lezka-mendelak. Jarduera biziko hegaztia da; landaredi artean mugitzen da, baina lurzoruan ere ibili ohi da

UR BENARRIZA

(*Acrocephalus paludicola*)

DESKRIBAPENA: tamaina txikiko hegaztia da, 13 cm inguru izango dena luzean. Bizkaraldean base-kolore crema-argia edo olibakara du bereizgarri, baina beltzez zeharo marratua. Buruan bekain okre bat dauka, gainean lerro ilun bat ageri duena; kaskoaren erdialdea argia du. Beheko aldeak arre-argiak ditu. Moko-beltza da, eta arrosa-koloreak ditu hankak.

TAMAINA: luzera: 13 cm.

BIOLOGIA: habiagintza-eremuetan, bizilekutzat aukeratzen ditu, besteak beste: zingiradiak; istingadiak; eitebaxuko belar-eiteko landaredi zingiratarra ageri duten ur-ibilguak. Migrazio-garaian kostaldeko paduretan eta urtegietan ere ageri ohi da. Ohitura bakarti eta zuhurrak dagozkio; denbora franko ematen du landaredi artean. Aise ibili ohi da lurtean, eta korri ere egin dezake. Hegaldi laburrekoa da; hasi eta berehala egiten ostera ezkutura. Ihitokietan egiten du habia, lurzorutik altuera gutxira. Katilu-erako habia osatzen du, belar, armiarma-sare eta biloez baliaturik; barrualdea tapizatu egiten dio. Urtean errunaldi bakarri dagokio; bospasei arrautza erruten ditu



orduan.

Oso bakanak dira Euskal Autonomia Erkidegoan hautemandako aleak. Europako populazioa berebiziko atzerakada jasaten ari da.

Ur-benarrizaren populazioaren atzerakada ondoko eragileek sorturikoa da: habitataren narriadura, habia-lekuetan; eta baliabide trofikoaren galera, pestiziden neurritz gaindiko erabileraren ondorioz.

ELIKADURA: intsektuez elikatzen da.

HABITATA: espezie migratzaile urria da Euskal Herrian: kostaldean ageri ohi da, Txingudi aldean batik bat; barrualdeko hezeguneetan ere ikus daiteke noizean behin.

BENARRIZ NABARRA

(*Locustella naevia*)

DESKRIBAPENA: benarriz nabaria txori txiki eta izua da, normalean sastraka eta belar artean ibili ohi dena. Bizkaralde arre-nabara, sabelalde zuriska eta hankak



arrosak ditu.

TAMAINA: luzera: 13 cm. Pisua: 13-16 g.

BIOLOGIA: Habia lurtean edo lurretik gertu egiten du. Migratzailea da.

ELIKADURA: Intsektuak eta ornogabe txikiak jaten ditu.

HABITATA: Euskal Herrian, isurialde atlantikoan soilik bizi da.

IHI HORIA (*Cisticola juncidis*)

DESKRIBAPENA: kolore arreko txori ñimiño honek tonu horiskez eta beltzez apaindutako bizkar zerrendatu nabarmena agertzen du. Ezaugarriarik deigarrienak apeua eta hegan egiteko modua dira: buztana erabat zabalik daramala, goranzko eta beheranzko mugimenduz lurraldearen gainean hegan egiten duen bitartean, “tsip, tsip, tsip, tsip...” eten-gabe eta sarkorra sortzen du. Zeregin honetan denbora luzean ihardun ondoren, une batez pausatu eta berriro ere lan berdinari ekiten dio. Ikusten dugunean, zabalik daraman buztanaren hegaldia argiak, bizkar zerrendatua, tamaina txikia eta hegaldi berezia direla eta ezagutuko dugu. Benarrizekin nahas genezake, baina hauek baino txikiagoak dira eta bekain zuria agertzen dute.

TAMAINA: luzera: 13 cm. Pisua: 7-9 g.

BIOLOGIA: Euskal Herrian sedentario modura jokatzeko du.



Bizitza osoa landaredi murriztean ematen du, luraren arrasean, altuera eskaseko landare belarkara tenteetan, batez ere.

Boila-itxurako habia ñimiñoa, zurtoinak amaraunez elkarlotuz eraikitzen du. 4-6 arrautza erruten ditu eta bi astetan zehar inkubatuko ditu. Txitoek habiatik alde egin arte beste horrenbeste denbora pasatuko da. Urtean bi edo hiru txitaldi egoten dira.

Ihi-txoria oso sentikorra da tenperatura baxuekiko eta haren populazioek hilkortasun handia izaten dute oso negu latzak suertatzen direnean.

ELIKADURA: intsektuz elikatzen da, neguan zehar haziak gehigarri modura kontsumitzen badiu ere.

HABITATA: Euskal Herrian landazabaletako belazeei eta zenbait hezeguneren landaredi zuhaixkarari loturiko espeziea da. Goi-eremuak saihesten ditu eta ugariagoa izaten da negu leunagoak dituen kostaldeko eskualdean.



BASO TXINBOA (*Sylvia borin*)

DESKRIBAPENA: baso-txinboa kolore arre-grisaska uniforme, nahikoa moko sendoa eta hanka urdinskak dituen txori txikia da. Nahikoa izua da eta ia beti sasi edo sastraka artean ibili ohi da.

TAMAINA: luzera: 14 cm. Pisua: 13-17 g.

BIOLOGIA: habia zuhaitz eta zuhaisketan egiten du. Migratzailea da.

ELIKADURA: intsektuak, ornogabe txikiak eta fruituak jaten ditu.

HABITATA: Euskal herrian, zuhaitz eta zuhaiska gutxi dago-



en leku hehorretan salbu, edozein lekutan egeri da

SASI-TXORIA ARRUNTA (*Hippolais polyglotta*)

DESKRIBAPENA: txori hau ere ikusteko zaila sa, ia beti sasi eta zuhaisken artean baitago. Bizkar arre-berdeska eta bular horiska agertzen du, hego laburrak eta buztana ilunagoak direlarik. Lezkariengandik bereizteko kolore berdeagoak eta horiagoak aurkeztu dituela kontuan hartu behar da, eta txioekin ez nahasteko, tamaina handiagoari eta buruko bekoki zapalari begiratu behar zaio. Espeziearen izenak beste txorien txintak antzeratzeko duen gaitasuna isladatzen du, adartxoetatik berezkoa duen txioa eta beste txoriei entzundakoa etengabe nahastu baitu.

Kantuka dabilen bitartean, mokoaren beheko parte horia beha daiteke.

TAMAINA: luzera: 13 cm. Pisua: 9-15 g.

BIOLOGIA: udako espezie honetako lehenengo aleak apirilak edo maiatzak aldera heltzen dira.



Garai horretan, arrek adartxoren batetik sortutako lurralde-kantua entzun daiteke.

Bikote bakoitzak aukeratutako eremua beste lurraldeetatik ondo bereiztua egoten da, oso portaera lurraldekoia erakusten baitute.

Habia zuhaiska arantzazsuetan edo tamaina handiko sasietan kokatzen dute. Emeak, berak inkubatuko dituen 4-5 arrautza erruten ditu, 12-14 eguneko inkubazioaren ondoren, txitoek habiatik alde egingo dutelarik.

Afrika tropikaleko negutokietatik uztailearen erdialdean itzultzen hasten bada ere, intentsitate handieneko mugimendua abuztuan ematen da, eta hegazti atzeratuenean irailean ekingo diote bideari.

ELIKADURA: sasien arte harrapatutako intsektu eta beldarrez elikatzen da.

HABITATA: eremu erdirekietako sastrakadietan, eta basoetako argiune eta ertzetan bizi da, baina goi-lurraldeetan kokaturiko eremuak saihesten ditu. Euskal Herrian ohikoa izaten da kostaldeko padura eta landazabaletan, landaturiko pinudien ertzetan, ibai-basoetan eta zereal-laboreen eta mahastien artean tartekaturiko heskaletan.



ETZE TXINBOA (*Sylvia undata*)

DESKRIBAPENA: espezie intsektujale honek elikargia lurrean bilatzen du bereziki. Era berean, fruituz eta haziz elikatzen da, neguan batez ere.

Apirilean hasten da ugaltzeko aldia. Emeak bi errunaldi egin ditzake, 4-5na arrautzak osatuak. Sastraka eta txibizi den ota txinboa, arregarrika koloreko bularra duena, eta bere buztan luzea beti tente eramaten duena.

ELIKADURA: sasien arte harrapatutako intsektu eta beldarrez elikatzen da.



TXINBO KASKABELTZA

(*Sylvia atricapilla*)

DESKRIBAPENA: gorputzeko kolore arre-grisaska, bizkarrean hauts-koloreko eta sabelaldean tonu zuri zikin bilakatzeko da. Arrak aurretik begirano eta atzetik garondoraino heltzen den buruko pileoa agertzen du. Emeek eta gazteek pileo berdina agertzen dute, baina honen kolorea gaztain-kara-gorrika da. Txinbo kaskabeltzaren eta zozo-txinboaren pileoa antzekoa da, baina bada bi txinbo hauek bereizteko ezaugarri baliagarrik: txinbo-kaskabeltzak begia estali arte zabaltzen den kasketa du, eta gainera begien eta begiko eraztunaren kolorea gorria da.

TAMAINA: luzera:14-15 cm. Pisua: 15-20 g.

BIOLOGIA: lurralde hotzagoetako populazioek jokabide migratzailea agertzen dute, negutokia penintsulan edo Afrikan dutelarik. Kantauri aldean urte osoan zehar beha daitetze, baina neguan popplazioak beherakada nabaria jasaten du, hegazti askok migrazioari ekiten baitiote.

Bikoteak sastraka edo zuhaiskaren batean eta lurretik hurbil, habia latza eraikiko du, bertan, emeak 5 arrautza errungo dituelarik. 12-13 egunetan zehar luzatuko den inkubazioa ere



bi helduek burutuko dute, eta txitoek, jaio et 10 egunetara habiatik alde egingo dute. Oraindik ere bi astetan zehar gurasoen ardurapean egongo dira.

ELIKADURA: gure Euskal Herria negu-tokitizat aukeratzeko duten txinboak fruituz elikatzen dira. Udan zehar intsektujaleak dira, fruituak erabat baztertu gabe.

HABITATA: oso espezie arrunta Euskal Herrian, eta mota guztietako zuhaizdun eremuetan bizi da, nolabaiteko garapena duen oihanpea dutenetan behintzat.

EZKAL TXINBOA

(*Sylvia conspicillata*)

DESKRIBAPENA: txori txikia da, 13 cm-ko luzera lortzen du. Bizkaraldekoa arre-gorrika koloretakoa da eta burua gris-errautsa, mokoaren ertzetan beltzarana. Hegoak arre koloretakoak dira eta lumen alboak argitsuak. Isatsa grisa iluna da eta erretrize argitsu kanpokoekin. Eztarria zuri ospetsua, bularra arrosatkoa eta beheko aldeak argitsuagoak. Emeak arrak baino diseinu gutxiago kontrastatuta dauka, marroi-grisa. Moko beltza da eta hankak arre ilunekoak.

TAMAINA: luzera: 13 cm. Pisua: 14-16 g.

BIOLOGIA: oso bizikorra da eta landaretza artean mugitzen da eten barik. Hegalaldia baxua eta laburra izaten da; arriskuan dagoenean sastraken artean ezkutatzen da. Landaretza artean, lurretik hurbil habia egiten du, landareztaz egindako habiak argitsu baretik tapizatuak egiten ditu.

Euskal Herriko populazio aktiboa 20 bikotekoa baino handiagoa ez dela estimatzen da. Europan zehar, Penintsula Iberiar eta Penintsula Italiarratik banatutako populazioak egonkor mantentzen direla dirudi.

Bere populazioek mugatzen dituen faktorea, bai dentsitatea bai distribuzio zonaldeari buruz hitz egiten, giro erdilehor edo zuhaiska-formako estepen gabezia izaten da.



Kontserbazio neurriak espezie honek populatzen dituen habitaren iraupena lortzera helbideratu behar dira.

ELIKADURA: fruituaz eta artropodoz elikatzen da.

HABITATA: ipuru eta txilar otalurretan bizitzen da eta karraskadun eguteratan. Larre xerofilodun muinoetan eta material mediterranean mehea dagoen lekuetan presente dago ere. Orokorrean leku hauen lurzoru biluzien portzentaia garaia izaten da.

Mediterraneo ingurualdetik banatuta dago. Gure lurraldean bakarrik agertzen da Arabako bi herrietan.

TXINBO PAPARGORRIZTA

(*Sylvia cantillans*)

DESKRIBAPENA: oso txori txikia da eta nekez ailegatzeko da 12 cm-ko luzera neurtzera. Arrak oso kontraste polita erakusten du, bizkaraldekoa grisa-urdina eta beheko aldeak gorritxu edo gaztain koloretakoak, zurbilagoak sabelaldean. Hegoak arre-grisak dira isatsa bezala. Isatseko kanpokaldeko erretrizeak argitsuak dira. Bizar-kutsua zuria da eta oso deigarria den eraztun gorria dauka.

Emeak arrek baino tonu ilunagoak ditu hain bereizgarri diren mota barik baina bizar-kutsu zirriborroekin. Moko grisa koloretakoa da eta hankak arre-horiak.

Mediterraneo ingurunean banatzen da. Gure lurraldean, eragin mediterraneoarko lurralde batean agertzen da, Ebroko ibarreko ingurunean. Udako hegazti migratzailea da eta udazkenean neguterako transahariako koarteletera helbideratzen da.

TAMAINA: luzera: 12 cm. Pisua: 11-13 g.

BIOLOGIA: oso ekintsua da eta eten gabe aritzen da landaretza artean hegaldia laburrak zabaltzen. Sarrasken artean kopa itxurako habia egiten du, baretik tapizatu. Urtean bitan jartzen du hiru edo lau arrautze.

Euskal Herriko populazio aktiboaren kopurua ez dela 500 kide baino handiagokoa estimatzen da. Zonalde batzuetan espezie honen dentsitatea 0.4 kide 10 hektarietarako da. Gertakin honek tendentzia egonkorra adierazi lezake, Europa osoko populazioarekin bat.



Hegazti honen populazioen dentsitatea eta antolaketa murrizten duen faktorea, espeziea behar duen ekologikoki aproposak diren enkalbeen urritasuna da. Mediterraneoaldera sarraskaz beteta dauden lekuetan, faktore batzuen oreka mantentzera zuzendu beharko lirateke kontserbaziorako neurriak. Faktore hauek abeltzainzaren presioa, birpopulaketa, landaretzaren

segida naturala eta suagatik sortutako atzerakada dira.

ELIKADURA: basikoki artropodoak eta fruituak jaten du.

HABITATA: karraska lehorrak dauden zonaldeetan bizi egiten da zuhaiska txikiak dauden lekuetan, eta sastraka altuak edo uniformeak dauden lekuak sahiestaten ditu.

ZOZO TXIMBOA

(*Sylvia hortensis*)

DESKRIBAPENA: neurri txikiro txoria da baina beste txinboak baino handi eta sendoagoa, 15 cm-ko luzera lortzen. Arrak kuku-rutxo-txano grisa-beltza koloretakoa du begi behetik zabaltzen. Bizkaraldekoa, arre-grisa uniforme koloretakoa da. Hegoak ilunak dira, ia beltzak, ertze zuri batzuekin. Isatsa grisa da kanpoko alde zuriekin. Behealdean argitsuak da, bularra eta hegala kremakoloretakoak. Emeak kukuruto-txano arre-grisa koloretakoa du eta bularra eta hegala arre koloretakoak. Moko beltza da eta hankak grisak.

TAMAINA: luzera: 15 cm. Pisua: 18-24 g.



BIOLOGIA: oso ekintsua da eta gelditu barik mugitzen da enbor altu eta landaretza artean. Zuhaitz eta zuhaisketan habia egiten du, kopako itxurazko habiak eginez baretik tapizatuak. Urtean behin edo bitan jartzen du 4-5-ko errunaldiak. Populazioa, 100 bikotekoa baino handiagoa ez dela estimatzen da. Europan,

populazio batzuen atzerakada jakina da.

Populazioen atzerakada ingurunearen aldaketagatik izaten da, batez ere basoko guneen galtzeagatik. Galtze hau basoko sute eta nekazari-areagotzeagatik ematen da.

Kontserbaziorako neurriak habitaren iraupena lortzera helbideratu beharko lituzke, luraren erabilpen intentsiboak saihesten.

ELIKADURA: intsektuak, artropodoak eta fruituak ere jaten ditu.

HABITATA: zuhaitz inguruneetan bizitzen da, karraska degradatuetan eta Aleppo pinuko pinudietan.

Mediterraneo ingurutik banatuta dago. Gure lurraldean Araban egoten da eragin mediterraneoko alde batean. Udakoa eta migratzaile izakera du eta udazkena heltzen denean, Afrika saharar beheko koarteleetan hibernatzen du.

TXIO ARRUNTA (*Phylloscopus collybita*)

DESKRIBAPENA: lumaje homogeneo samarra duen txoria dugu hau. Bizkarreko lumak oliba-berdean dira, ilunagoak buztanean eta hegoetan. Bularrean eta sabelaldean ukitu horiskez margotutako tonu zuriska agertzen du, besapean ñabardura hori hauek ilunagoak direlarik. Begiaren gainean gutxi markatutako bekain horiska agertzen du. Txio horiarengandik bereizteko modu bakarra kantatzen entzutea da, nahiz eta zenbait xehetasun fisiko egon: bekain markatuagoa eta hanketako kolorea, iluna txio arruntan ara argia txio horian.

TAMAINA: luzera: 11 cm. Hego-luzera: 17-18. Pisua: 7-9 g.
BIOLOGIA: bertako txio habigileek hegoalderantz negu epelagoen bila abiatzen diren bitartean, gure larreetara europar jatorriko txio-kopuru oraindik altuagoa heltzen da. Badirudi heldu berriak collybita subespeziekoak direla, eta



urriak, azaroak eta baita abenduak aldera ere, heltzen dira, apirilean berriro alde egiteko. Ale habigileek lurretik hurbil dauden zuhaiskak aukeratzen dituzte bolaitxurako habia eraikitzeke, baina ez lurraren arrasean daudenak, hauek txio horien gustokoak baitira. 5-7 arrautza artean erruten dituzte eta emeak 13-15 egunetan zehar inkubatuko ditu. Habian beste 13-15 egun eman ondoren, txitoak hegana egiteko gai dira.

ELIKADURA: intsektu txikiz, hauen arrautzez, beldarrez eta larbez elikatzen da soilik. Zurtoin, hosto eta loreen artean bilatuko ditu, edo bestela, hegaldi laburretan harropa ditzake.

HABITATA: habia egiteko era guztietako basoak aukertzen ditu, zuhaiska-geruzan finkatzen delarik. Pinudi eta haltzadiak nahiago ditu, baina lorategi eta parke zuhaiztuak eta heskai handiz inguratutako landazabaleko eremuak ere gogoko ditu.

Neguan eta migrazio-mugimenduetan zehar edozein habitatean behatzea arruntagoa da, hondartzetako berdegunetak barne.



TXIO LEPAZURIA (*Phylloscopus bonelli*)

DESKRIBAPENA: zaila izaten da beste txio-espezie batzuetatik bereizten: gibelaldea eta burua apur bat grisaxkagoa, eta azpialdeak argiagoak. Are zailagoa da kantuen bidez bereizten, nota bakar bat errepikatzen baitu txio geldo eta laburra egin ez.

TAMAINA: luzera: 11,5 cm. Pisua: 7-9 g

BIOLOGIA: espezie migratzailea delarik, Penintsulako iparraldeko ugaltze-lurraldeetan



ra martxoaren bukaeran heltzen da, eta uztailaren bukaeran edo abuztuaren hasieran alde egiten.

ELIKADURA: intsektu txikiz, hauen arrautzez, beldarrez eta larbez elikatzen da soilik

HABITATA: espezie hau ohikoa izaten da baso eta sastrakadi supramediterraneanarretan eta bereziki ugaria da ameztietan.

TXIO IBERIARRA (*Phylloscopus ibericus*)

DESKRIBAPENA: gainalde berdexka eta azpialde hori argia duen hegaztia, hanka beltzekak dituen. Zaila da beste txioetatik bereizten, bereziki Txio Arruntetik (*Phylloscopus collybita*); izan ere, bi hauek elkarrekin aurki daitezke Euskal Herrian. Bereizteko modu bakarra, baina ez erabatekoa da kantauri adi egotea: Txio Arruntak chif-chaf moduko hots errepikakor eta monotonoa ateratzen du eta Txio Iberiarraren ahotsa aldiz, beheranzko sip-sip-sip-sip gisakoa da.

TAMAINA: luzera: 11 cm. Pisua: 6-9 g.

BIOLOGIA: 4-7 arrautza artean erruten dituzte eta emeak 14-15 egunetan zehar inkubatuko ditu. Habian beste 13-14 egun eman ondoren, txitoak hegana egiteko gai dira. Txio hauek gehienak migratzaileak dira eta ugaltze-lurraldetik irailaren inguruan alde egiten dute. Neguan, zenbait ale ikus daitezke, ziurrenik Britaniar Uharteetatik, Frantziatik edo Herbeheretatik etorritako txio arruntak. Udaberriko pasea, otsailaren erditik apirilaren bukaera arte gertatzen da, eta hasieran, bakarrik txio aurrentez



osaturik egoten da. Martxoaren hasieratik aurrera entzun daitezke Txio Iberiarraren lehen kantuak.

ELIKADURA: intsektu txikiz, hauen arrautzez, beldarrez eta larbez elikatzen da soilik

HABITATA: Txio Iberiarra Euskal Herriko zuhaizdun eremu gehienetan aurki daiteke, bai eta landazabaletan eta ibai-basoetan ere. Edonola, Txio Arrunta Atlantiar isurialdeko baso eta landazabaletan bizi da nagusiki, batez ere kostaldeko haranetan.

TXIO HORIA (*Phylloscopus trochillus*)

DESKRIBAPENA: txori honek oso txikia da eta nekez 11 cm-ko luzera eskuratzen du. Bizkaraldean, hegoak eta isatsa, oliba-berde koloretakoak dira. Bekain argitsua eta horitsua. Behealdean, bularra eta eztarria hori-ilunak dira eta bestea zuri zikineko kolorekoa. Mokoare kolorekoa. Txio Arrunta eta Txio Horia oso itxura parekoak dira, baina Txio Horiak, Txio Arruntak baino tonu horitsuagoak erakusten ditu eta hankak argitsuagoak ditu (haragi koloretakoak). Bi espezie hauek hegaltze formularen xehetasun batzuetan desberdintzen dira ere.

TAMAINA: luzera: 11 cm. Pisua: 6-9 g.

BIOLOGIA: orokorrean animalia bakartia da baina talde txikiak osatu ahal du. Lurzoruan egiten du habia, landare baten oinaldean. Habiak borobilak dira, landaretzaz eginak eta barnetik tapizatuak. Urean bitan jartzen du 6-7 arraultzeko errunaldiak.

Euskal Herriaren populazio ugaltzailea 50 bikotekoa baino txikiagoa dela estimatzen da. populazioen dentsitate eta banaketa gutxitzen doa espezierako behar diren enklabe ekologikorik ez daudelako.

Kontserbaziorako neurri moduan, espezie honek okupatzen dituen lurraldeak ondo mantentzeak, bere populazioen iraupena ziurtatuko du.



ELIKADURA: basikoki, artropodoak, intsektuak, araknidak eta fruituak jaten ditu.

HABITATA: ingurune irekietan bizitzen da, sastraketan, elorri zuriko otalurretan, urrondoetan eta birsorkuntzen ari diren haritzak daudenean. Hala ere ibai ertzeko basoetan bizitzen da. landaretza artean asko mugitzen da eta hain hegaltze laburra dauka mugitzerakoan, salto txikiak egiten ari dela dirudi.

Oso banatuta dago paleartikotik baina mediterranean ingurutik ausente. Gure lurraldean Atlantiko aldetik kokatuta dago. Migratzailea eta udakoa da, eta Afrika Subsaharianean hibernatzen du.

ERREGETXO BEKAINZURIA

(*Regulus ignicapillus*)

DESKRIBAPENA: erregetxoak Europako txoririk txikienak dira. Bizkar oliba-arrea eta hego eta buztan zuriak agertzen ditu, bularrean tonu zuri ziki-na nagusitzen delarik. Arrek buru erdian bi marra beltzez inguratutako orban hori eta laranja aurkezten dute, eta emeek, berriz, orban horia dute. Gure Euskal Herrian negutarra den mendi-erregetxoa eta erregetxo bekainzuria, sedentarioa, bereizteko, azken honen begia zeharkatzen duen marra ilunaren gaineko azaleko zerrenda zuriari begiratu behar zaio. Oso txinta deigarri eta bereizgarria sortzen du, gero eta arinagoa den “tsi-tsi-tsi-tsi-tsi” antzeko soinu jarraia.

TAMAINA: luzera: 8-9 cm. Hego-luzera: 15-16. Pisua: 6-7 g.

BIOLOGIA: espezie sedentario hau neguan eta udazkenean ugariagoa da, iparraldetik datozen hegaztien etorreraren ondorioz.

Habia bi adarren artean zintzilik egoten da, gogokoen duen zuhaitza pinua delarik.

Habia, likenez, goroldioz eta belarrez egiten du, adarrari lotzeko amaraunak erabiltzen dituelarik.

Txitaldi bakoitzean 11 arrautza ere jartzen ditu, eta urtero bi txitaldi egon daitezke. Negu bortitzetan espezie leun honetako ale ugari hiltzen denez, jaiotze-tasak hilkortasun-tasa altu hau konpentsatu behar du. Emeak 15 egunetan zehar inkubatuko ditu arrautzak, eta hurrengo 17 egunetan, bikotea txitoak elikatzeko lanean arituko da. Ondoren, kumeek habia



utziko dute.

Hegazti zaratatsu eta sozialea da, eta neguan zehar beste paridoekin batera ikus daiteke.

ELIKADURA: intsektu txiki ugariz eta beste zenbait omogabez elikatzen da, hauek adarren artean etengabe harrapatuko dituztelarik.

HABITATA: basoetako adar eta adartxoan artean elikagai bila aritzen da. Konifero-basoak nahiago ditu, eta Pinus insignis koniferoen bipopulaketetara horren ondo moldatu denez, gaur egun habitata baso hauetan duela esan dezakegu.

Erregetxo bekainzuriaren kontserbazioaren estatusa aldiz, aldekoa dela dirudi, zeren mota guztietako basoetan aurkitzen baita eta ziurrenik Euskal Herrian populazio ugaltzaile handiena duen hegazti-espezia baita.

MENDI ERREGETXO

(*Regulus regulus*)

DESKRIBAPENA: erregetxo Bekainzuria-rekin (*Regulus ignicapillus*) batera, Europako hegaztirik txikiena da. Bekainzuritik bereizten da ez bekain zuririk eta ez begi-zirrinta beltzetik ez duelako. Gainera, Erregetxo Bekainzuria zuhaizdun eremu guztietan oso ugaria den bitartean, Iberiar Penintsulan Mendi-erregetxoa goi-basoetan baino ez da aurkitzen. Ez bata, es bestea ez dira oso eza-gunak baserri-inguruetan; izan ere, adar eta hostoen muturretan bizi diren intsektuak harrapatzeko espezialdu dira eta beraz, ez dira ikusten errazak zuhaitzen nahaspilaren barruan.

TAMAINA: luzera. 9 cm. Pisua: 5-7 g.

ELIKADURA: Intsektujalea da.

HABITATA: mendi-erregetxoak oso populazio txikia du



Euskal Herrian, eta 600 metroko altueratik gora dauden Pinu Gorriko basoetan eta adineko konifero-landaketa batzuetan baino ez da aurkitzen.

EULITXORI BELTZA

(*Ficedula hypoleuca*)

DESKRIBAPENA: txolarre bat baino tamaina txikiagokoa da. Oso berezia da arrak araldian erakusten duen lumadiaren kolorea: gainaldea beltza eta azpialdea aldiz, zuria, eta hego-zerrenda zuri bat eta orban zuri bat bekokian. Udazkeneko mudaren ostean, arrek emeek eta gazteek izan ohi dutenaren antzeko lumadia hartzen dute: azpialde zuria, eta gainalde arrea, hego-zerrenda zuri batekin. Euskal Herrian azken itxura hau ikusten diogu gehienetan, oso euli-txori ugaria eta nabarmena baita udazkeneko pasean (abuztua/urria). Urtesaso honetan non-nahi aurkitzen dugu, zutoin, hesi, zuhaixka eta zuhaitzetatik bere fruit moduko hots bereizgarria etengabe egiten. Edonola, haren populazio habiagilea oso urria da Euskadin; izan ere, gogokoena duen habitata osatzen duten adineko harizti eta ameztiekin gure lurraldean oso eremu txikia estaltzen dutelarik, ehun bikote baino gutxiago ugaltzen bide dira bertan.

Behar dituen berezko hutsuneen ordezkotza moduan, habi-kaxak ipintzea euli-txori beltzarentzat guztiz onuragarria gertatu da toki askotan. Beste alde batetik, berarengan eragin oso kaltegarria duen faktore bat legez kanpoko ehiza da, Mediterraneoko herrialdeetan, migrazio aldietan.

TAMAINA: luzera: 12,5 cm. Pisua: 13-14 g.

BIOLOGIA: habia arboletako hutsuneetan egiten du, eta habi-kaxak ere erabiltzen ditu. Seiren bat arrautza erruten



ditu, urteko errunaldi bakar batean. Euli txori beltza, seguraski, migrazio bidaietan gure lurraldea zeharkatzen gehien nabarmentzen den hegazti paseriformea da. Abuztuaren erdialdetik irailaren azkenaldera arte, hegazti hauen benetako inbasio bat hedatzen da alde guztietan, Europako iparralde eta erdialdetik mendebaldeko Afrikarako bidaiari. Aipatzekoa da garai horretan hegazti guztiek emearen berezko lumaje arreska ageri dutela, baita ar helduek ere, dagoe-

neko lumaz aldatu eta udaberriko beren kolore ikusgarriak galdu baitituzte. Ezteiaurreko pasea udazkenekoa baino ekialderago dauden bideetatik egiten da- arrazoi horregatik askozaz ere gutxiago ikusten da gure lurraldean-, eta batez ere apirilaren hondorretan eta maiatzaren lehenengo hamabostaldian izaten da.

ELIKADURA: intsektujalea da. Intsektuak harrapatzeko ohizko teknika pausaleku batetik harrapakinak begiztatu eta haiengana oldartzean datza. Udazkenean zenbait fruitu eta hazi ere jan ditzake.

HABITATA: migrazio aldietako paseetan, edozein motatako inguruneetan ikus daiteke -batez ere baso bazterretan eta hesiguneetan-, baina umetze aldiaren beren habitat-eskakizunak askozaz zorrotzagoak dira. Arbola zaharrak, habia egiteko zuloak dauzkatenak, eta intsektuak harrapatzeko eremu irekiak dauden basoetan finkatzen da. Araban ohizkoa da ameztietan, baina dehesa-antzeko erkameztiak eta bestelako basoak ere okupatzen ditu. Negupasako lekuetan, oihanaren eta sabanaren arteko aldeetan bizi da.

HEDAPENA: batez ere Europan, udaberrian. Araban ugaltzaile bezala bakana da, baina udazkeneko migrazioan edonon agertzen da.



EULI-TXORI GRISA (*Muscicapa striata*)

DESKRIBAPENA: euli-txori hau erraza da identifikatzen, batez ere ehizarako duen jokaragatik: pausaleku egoki batetik, hegaldi labur bat egiten du intsektu hegodunak harrapatzeko eta ondoren, pausaleku berberera itzultzen da. Sexu bien lumaldia grisaxka izaten da gainaldean eta zurixka azpialdean, eta zirrinta mehe ilunak dituzte bekkokian eta bularrean.

TAMAINA: luzera: 14 cm. Pisua: 15-16 g.

BIOLOGIA: Euskal Herrian arrunta izan arren, ez da ugaria, ez eta ere hegazti geldikorra. Apirilaren amaieran heltzen da gure latitudetara, eta maiatzaren erdialderako aurki daitezke zenbait bikote habia egiten.

Bere lumajea ez da ipar euli-txori arrarena bezain ikusgarria



eta ez dute dimorfismo sexualik.

Beste hegaztietatik bereizten duen partikulitate bat azaltzen dute lehenengo arraun-lumak, alderantzizka beritzen dituela, gorputzetik urrutien daudenetatik hasiz alegia.

ELIKADURA: intsektuz elikatzen da.

HABITATA: espezie honek, bere ahiade den ipar euli-txoriaren ohitura ezberdinak izaten ditu fruita-arbola inguru garbitan ibiltzen bait da maiz. Habia fruita-arbolek dituzten zulogune-sarreretan habilki eraikitzen du.

Banaketa irregularreko espezie urria da, eta oro har, altuera txikiko lurraldeetan aurkitzen da, gehienetan 600 m-ko altueratik behera. Nagusiki koniferoeta hostozabal-baso helduen argiune eta ertzetan bizi da, baina baita landazabaletan ere, eta orduan baserrien eta bestelako giza erai-kinen inguruetan ikus daiteke.

GARRAPOA (*Sitta europaea*)

DESKRIBAPENA: hegazti potoloa; gainaldea gris urdinska kolorekoa du, begiak zeharkatzen dituzten zirrinta beltz banarekin, eta azpialdeak, gorritak edo okre antzekoak.

Espezie hau, ia erabat zuhaitztarra delarik, deigarria da enborretan zehar buruz behera jaiseko duen trebetasuna; izan ere, ez okilak ez gerri-txoriak ez dira honelako balentriarik egiteko gauza.

TAMAINA: luzera: 14 cm. Pisua: 20-22 g.

BIOLOGIA: ugaltze-sasoian ezinbestekoak ditu habia egiteko zuloak dituzten adineko zuhaitzak. Harrapatzaileen arriskua murrizteko, txikiago egiten du habiaren sarrearen diametroa, bere listuaz bustitako buztin-bola txikiak itsatsiz; hauxe da zalantzarik gabe espezie honen jokaeraren ezaugarririk bereziena.

ELIKADURA: zuhaitz hostoerorkorreen enbor eta adar lodietan elikatzen da nagusiki, eta, neurri txikiagoan bada ere, zorua eta zuhaitzen adaburuak ere miatzen ditu. Konifero-basoak eta baso hostozabal gazteak saihesten ditu; hori dela



eta, espezie honen kontserbazioa, beste espezie troglodita batzuen bezala, estuki lotuta dago baso hostozabal helduen kontserbazioarekin.

HABITATA: hostogalkorren basoak oso gustuko ditu.

Euskal Herrian, eskualde mediterraniarrean ez beste lekuetan bizi da.

BUZTANLUZEA (*Aegithalos caudatus*)

DESKRIBAPENA: txori honen ezaugarriarik bereizgarriena ertz zuriko buztan beltza da, honen neurria gorputz osoa baino luzeagoa, 7,5-9 cm. artekoa, izan baitaiteke. Buru zuria zeharkatzen duen bekain beltza du.

Gorputzak kolore zuri bera agertzen du, buztan beltza eta albo ilunak salbu.

Ezinegon handia erakusten du eta taldeka behatu ohi da. Zuhaitzez zuhaitz ibiltzen da hegaldi labur eta ezbaikorretan.

TAMAINA: luzera: 14 cm. Hego-luzera: 17. Pisua: 8 g.

BIOLOGIA: migrazio-mugimenduetan zehar, urriaren bukaeran, ugari samarra da, atsedean hartzeko pausatzen diren edo hegan pasatzen diren hegazti-saldo handiak, modu jarraian ikusi ahal izango ditugularik. Neguan saldotan biltzen dira, baina talde hauek otsailaren bukaeran desegino dira, eta bikote bakoitzak bere habia eraikiko du. Hiru aste inguru emango dituzte lan honetan. Izan daitekeen bola-itxurako habiak, ehundura kotoikara du, eta liken eta goroldioz estalita dago, materiale hauek eranstea amaraunak, beldar-zeta eta landarezuntzak erabiltzen dituelarik. Habia, lurretik hurbil edo zuhaitzetako goiko partean koka dezake, bai adarren artean bai urkila batez lurrik. Barnealdea oilategietan edo lumatzeko-ekuetan bildutako lumaz bete ohi du (1000-2000 luma erabiltzen ditu). Emeak 8-12 arrautza erruten ditu, eta ia 15 egunetan zehar inkubatuko ditu.

Txitoek 14-18 egun inguru emango dituzte habian eta oraindik beste 15 egun beharko dituzte beraien kabuz bizitzen



hasteko. Denbora horretan zehar, eta baita habiaren eraikuntzan ere, helduek, txitaldia galdu edo bikoterik lortu ez duten txori baten edo biren laguntza jasotzen dute.

Kumatzearen ostean, buztanluzeek familiatalde trinkoak eratzen dituzte, eta basoan zehar ibiltzen dira nora ezean beste hegazti txiki batzuekin batera, batez ere amilotx eta kaskabeltzekin.

ELIKADURA: ornogabez elikatzen dira, pinu-beldarraren lehen larba-aldiak eta bestelako izurriteen eragileak harrapatzen dituztelarik.

HABITATA: Euskal Herriko zuhaizdun eremu guztietan aurkitu ohi den baso-espeziea da; edonola, nahiago izaten ditu baso hostozabalak, neguan nahiz ugaltze-sasoian. Hala ere, ez da oso espezie ugaria, eta haren agerpena nabariki baldintzatzen du nolabaiteko oihanpea egoteak, askotan erabiltzen baitu substratu hau harrapakinak bilatzeko eta habia kokatzeko

HARKAITZ-TXORIA (*Trichodroma muraria*)

DESKRIBAPENA: espezie nahastezina. Kolore grisaxka eta hego gorriak dituelarik, haren hegaldiak tximele-tena gogorazten ditu.

TAMAINA:

luzera: 16,5 cm. Pisua: 15-20 g.

BIOLOGIA: hegazti hau Kantauriar Mendileroko eta Pirinioetako malkarretan kumatzen da,



1.800 metroko altueratik gora. Ugaltze-sasoian ostean, ale asko sakabanatu eta askoz ere beherago jaisten dira, bai eta kostaldeko harkaitz batzuetaraino ere heldaitezke. Sakabanaturiko hegazti hauek ikus daitezke noizik behinka gure mendietan urriaren bukaeratik martxoaren

bukaera arte.

Neguan, mendien goialdetik haranetara jaisten da.

ELIKADURA: ornogabeak jaten ditu.

HABITATA: mendi handietako labarretan bizi da eta harkaitzetan gora edo behera ibiltzeko gai da. Euskal Herrian, Pirinioetan soilik bizi da.

GERRI-TXORI ARRUNTA

(*Certhia brachydactyla*)

DESKRIBAPENA: txori honen lumajeak, kolore arre, zuri, beltz eta gorri-horiak nahasten ditu, zuhaitzen azala gogora dakarkigularik. Bularra, paparra eta masailak tonu zuri zikina agertzen dute, azaleko zerrenda arre batez apainduta. Ezaugarriak bereizgarrienak behe-rantz okertutako mokoa eta aurkeztzen duen jarrera dira. Zuhaitzen enborretik gora bueltak ematen igotzen da, buztan gogorra eustarri modura erabiliz eta atzaparren bidez enbora helduz.

TAMAINA: luzera: 12-12,5 cm. Hego-luzera: 33-37. Pisua: 8-12 g.

BIOLOGIA: neguan hazkunde txikia agertzen duen espezie sedentarioa dugu hau. Zuhaitzetan egiten du habia, azalik gabeko arrakaletan, gehien bat. Habia goroldioz, belarrez... egin ohi du, bertan errundako 6-7 arrautzak 15 egunetan zehar inkubatuko dituelarik.

Txitoek habian 16-17 egun emango dituzte, eta ondoren gurasoekin denboraldi bat igaroko dute, familiarren batasuna negu osoan zehar ere mantentzeko.

Zuhaitzetan zenbait paridorekin batera bizi direnez, eremua honela banatzen dute: amilotx urdinak kanpoko aldeetan, hau da, adartxoetan, hostoetan eta zurtoinetan ehizatzen du; kaskabeltz handia barrualdean aritzen da; eta gerri-txoria enborrean.



ELIKADURA: zuhaitzen azalean ezkutatua bizi diren omogabez elikatzen dira, mokoa animalia hauek ehizatzeke moldatu dutelarik. Ehizatzeke atzapar sendoen bidez zuhaitzetik zeharkako norabidean igotzen da, zirrikituetatik harrapakinak bilatzen dituen bitartean. Zuhaitz baten inguruan nahikoa buelta eman duenean bestearen oinarria pasatzen da, berriro ere espiralean igotzen hasteko.

HABITATA: oin zabal zaharrak dituzten basoetan arrunta da. Euskal Herrian, intsinis pinuko landaketa helduetan nertu dira dentsitate handienak, eta apur bat txikiagoak pagadi eta hariztietan.

URRETXORIA

(*Oriolus oriolus*)

DESKRIBAPENA: urretxoriak lumajearen dimorfismo sexual nabaria ageri du. Arrak hegoak eta isatsa beltzak eta gainerakoa hori bizia du.

Emeak bizkarra alde hori berdeska du, sabelalde grisaska da.

TAMAINA: luzera: 24 cm.

BIOLOGIA: habia zuhaitz handien goiakdean egiten du. Migratzailea da.

ELIKADURA: intsektuak eta fruituak jaten ditu.

HABITATA: Euskal Herrian, isuerialde mediterraniarrean soilik bizi da.



BASOETAKO GERRI TXORIA


(*Certhia familiaris*)

DESKRIBAPENA: oso txori txiki eta fina da eta gutxi gora behera 13 cm-ko luzera du. Gainetik gastain-gorritzko koloretakoa da, okre eta zuritxo zinta luzerakoekin. Buru marra-dun, bekain zuriekin. Hegoak nabarrak dira marra okreekin, eta isatsa arre-gorritzko koloretakoa da luma mardulekin, enborretan finkatzeko erabilgarriak. Beheko parteak zuriak dira. Mokoa eta hankak arre koloretakoak. Oso saila da Gerri-txori Arrunt eta Basoetako Gerri-txoria desberdintzea baina ahotsaz eta xehetasun morfologiko batzuez baliatuz posiblea izaten da.

TAMAINA: luzera: 13 cm. Pisua: 9-141 g.

BIOLOGIA: oso igokari ona da eta zuhaitzen enborretatik mugitzen da eten barik goitik behera kiribil moduan miatzen. Hegalaldia laburra eta uhindua da. Animalia bakartia da baina udazkena eta negua denean beste basoko txoriekin talde mistoak osatzen du. Habiak bai zuhaitzetan, zartaduretan edo enborrazal artean egiten ditu. Habiak kopako itxurakoak dira eta material landaretsuekin eginak, barrutik tapizatuak. Urtean bitan jartzen du 5-7 arrautzeko errunaldiak.

Gure lurraldean dagoen populazioa oso urria da. Europako populazioak jaidura desberdinak nabaritzen dute, batzuk handitzen doaz eta beste batzuk ordean gutxitu egiten ari



dira.

Espezieak bere lurraldearen banaketaren muturrean dago, hau dela eta, baldintza ekologikoak faktore mugatzaile natural moduan jokatzen dute espezie honen aurrerapenerako. Atzerakadaren arrazoien artean arboladi zaharrekiko baso helduen urritasuna seinalatzen da.

Kontserbazio neurri moduan, arboladi helduko masa mantendu behar da eta basoko ustiapenak antolatzerakoan irizpide ekologikoak kontutan izanda behar dira.

ELIKADURA: basikoki miatzen dituen zuhaitzen enborrazalean harrapatzen dituen artropodoak elikatzen da.

HABITATA: paleartikotik zabaltzen da. Euskal Herrian, zonalde medizkor bateko herri batean, baso heldu batean presente dago. Pagadi helduak eta baso koniferoetan bizitzen da

DILINDARIA

(*Remiz pendulinus*)

DESKRIBAPENA: tamaina txikiko hegaztia da, 11 cm luze izateraino haz daitekeena. Sexu-dimorfismoa ageri du. Arrak grisak ditu burua eta lepoaren atzealde, eta moztorra beltz zabal bat dauka; gaztaina-gorritza du bizkarra, eta hegoak orban arduak eta ertz zuridunak ditu, isatsa bezalatsu. Emeak kolore arrea du; moztorra txikia dauka eta garondo grisaxkagoa ageri du; mokoa eta hankak beltzak dauzka.

TAMAINA: luzera. 11 cm.

BIOLOGIA: izua da izatez, eta landarediaren goiko aldean garatu ohi du bere jarduna. Bakartia da; alabaina talde txikiak eratzen ditu udazkenean eta neguan. Zuhaitzetan egiten du habia, oro har makal edo sahatsetan; adar meheren baten muturra aukeratu ohi du. Poltsa zintzilikari baten antzeko habia bitxi bat egiten du, tunel labur gisako sarrera bat duena alboetik; bilo, zuntz eta ileez baliatzen da, eta tapizatu egiten dio barrualdea. Errunaldi bakarra dagokio urtean; bost edo zortzi



arrautza erruten ditu orduan.

Dilindarien populazioak urria behar du izan, eskueran ditugun adibideei jaramon egitera. Gure lurraldean, hain zuzen, oraindik orain gertatu da kolonizazioa eta goraka doa ezariz. Europan, bestalde, hedapen-prozesu nabarmenean dago; alderdi bakan batzuetan bakarrik nabari da atzerantzko joera.

ranzko joera.

Gorakadaren eragozle dira, esate baterako, ondo garaturiko eta kontserbaturiko basorik ez izatea ibaiertzetan, hala nola ibai mediterraneoen ingurumarietan; izan ere, ibaiertzak dira aldaketarik handienak pairatzen dituzten inguruneak.

ELIKADURA: artropodo, hazi eta fruituak ditu elikagaitzat.

HABITATA: ibaiertzak, makaldiak eta ibar-basoak ditu bizilekutzat.

Euskal Herrian eremu mediterranean baino ez da ageri: Ebro ibaian eta bere ibaiadarretan zehatz-mehatz.



GRÁFICAS **RD**



Impresión Offset
Impresión Digital
Fotografía
Cartelería

Velocidad

Tu imprenta de confianza




C/ IRUÑA, 1 BIS, 2ª PL.- BILBAO

✉ info@graficasrd.com

☎ 94 447 93 04

💻 www.graficasrd.com

NATURAREN AHOTSA ENTZUTEN DUGU



DONOSTIAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN
www.donostia.eus



www.dss2016.eus